

Horra, horra,  
gure Olentzero...



Xabi Otero

## Ohitura eta kontsumoa Eguberriari lotuak

Olentzeroarekin batera herri herri eta etxe etxe eskean ibiltzeko ohiturarekin kunplutuko da hurrengo as-


teotan. Garai batean intxaurrak, urrak, naranjak edo arraultzeak biltzen ziren, baina gaurko egunean dirua

ematen zaie eskean datozeinei. Izan ere, ohituraz gain kontsumoa eta dirua baita egunotan errege. Telebista-

ko iragarkiek eroatera bultzatzen gaituzte. 'Ez pentsatu, erosi' lelopean eginahal guziak egiten baitituzte behar duguna eta behar ez duguna saltzeko.

Euskal mendietako ikazkinarendako baino Orienteko Erregeendako egokiagoak dirudite Eguberrietako ospakizunak.

### BAZTAN: Hauteskundeak igandean



#### 4 Erreportaia: **Inork ez du herriko alkate izan nahi Baztanen**

Igande honetan, abenduak 20, herrietako alkateak hautatzeko bozketa egingen da Baztanen. Administrazioaren antolakuntza berezia dute Baztanen, eta antolakuntza horretan leku berezia dute herrietako alkateek.

#### 3 Elkarriketa: **Junkal Otxotorena, Drogomenpekotasun teknikaria Leitzaldean**

#### 10 Elkartasuna: **Eskualdeko 60 misiolarik Nafarroako Gobernuaren Urrezko Domina hartu dute**

#### 6-8 Iritzia:

Eguberrietako ospakizunen inguruan hainbat iritzi eta aholku, eta Baztango hauteskundearen analisia.

#### 28 Kirolak: **1998ko kirol izendegia**

Aurtien kirol modalitate desberdinetan nabarmendu diren kirolari eta taldeen errepasoa.

# KONTZERTUA Leitzako Frontoian

abenduak 19, arratseko 22etan

## ANARKO



## LATZEN

## KOMA

S A R R E R A K :

— Aurretik 1.300 Pta.  
— Bertan 1.500 Pta.



## Zer eskainiko dizu

## Gida honek?

## DEN-DENA

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, GIDA hone-tan aurkituko dituzu inguruotako profesional, ko-mertzio, lantegi eta zerbitzu guzi-guziak. Informa-zio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua, eta guzi hori, etxetik mugitu gabe.

### telefono gida 99

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harre-manetan **ABENDUAREN 19a** baino lehen eta mila-ka pertsonak irakurriko dute zure mezua.

**ttipi-ttapa** • Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA

**(+34) 948 63 11 88**

## DATUAK.....

❖ Junkal Otxotorena leitzarrak hiru hilabete daramazki droga menpekotasanaren aurkako prebentzio lanean Leitzaldeko herrietan.

❖ Hasieran lau hilabetez programa egiteko kontratatu bazuten ere, kontratua luzatuko diotela esan diote.

❖ Astelehen, astearte eta ostiraletan Leitzan egoten da; ostegun goizetan Goizuetan eta asteazkenetan Areson .

❖ Junkalek 'Gizarte Lana' ikasia du eta inoiz ez zen honelako lanean aritua: «Oposizioa ganditu eta hasi nintzen».

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
JOSEBA AZPIROZ

👉 **Junkal OTXOTORENA** Leitzaldeko Drogomenpekotasunerako teknikaria

## “Drogarekin elkarbizitzen ikasi behar dugu, bere menpean erori gabe”

### ZERTAN DATZA HIRU HILABETEOTAN EGIN DUZUN LANA?

Programaren helburua drogamenpekotasanaren prebentzioa da. Eta prebentzioa zer den? Arazoa sortu baino lehen lan egitea. Hasieran programaren berri eman da. Horretarako komunikabideetan—TTIPI-TTAPAN, hamabostean behin Karapen...—plazaratu ditugu gure asmoak. Gazteei informazioa eman diegu, ez bakarrik drogaz, baita HIESaz edo denbora libreaz ere; eskoletan ere egon gara txikienekin. Gurasoei ere, gazteen ohiturei eta jarrerai buruz informatu diegu tailer batzuetan, familiaren eragina oso inportantea baita prebentzioran.

### BERAZ, INFORMAZIOA ETA PREBENTZIOA DA ZURE LANA. BAINA DROGA MAIZ XAMAR HARTZEN DUTENEI ERE LAGUNTZEN DIEZUE?

Bai, gure programan prebentzioa dago alde batetik, baina bestetik arazoa dutenei harrera eta aholkularitza eskaintzen diegu. Askotan gurasoak etortzen dira, bere seme-alaben osasunaz arduratuak. Arazorik ez izanda ere, informazioa nahi izanez gero, ateak zabalik ditugu.

### ETA HORREN ARABERA, NOLA IKUSTEN DUZU

❖ “Alkohola da gehien kontsumitzen den sustantzia, baina askotan jendeak ez du dorgatzat hartzen. Halere, arazorik gehien sortzen duena da”



«Gure helburua arazoa sortu baino lehen lan egitea da»

### DROGA MENPEKOTASUNAREN ARAZOA LEITZALDEAN?

Leitzaldeko egoera aztertuz ez dago estu-diorik, baina Nafarroako datu igoaltsuak izanzen ditugu hemen ere, seguraski: Gehien kontsumitzen den sustantzia alkohola da, eta gero tabakoa. Gizartean gehien zabaldukoak dira eta askotan jendeak ez ditu drogatatzat har-

tzen, baina alkohola da arazorik gehien sortzen duena. Gazteen artean, kanabisa eta sistesi-drogen (extasia, speed-a...) kontsumoa hedatu da azken urteotan. 1996an gazteen %6ak kontsumitzen omen zuen speed-a eta urtebete beranduago, %15ak.

### BAINA DROGOMENPEKOTASUNA ETA NOIZ-BAIT DROGA HARTZEA EZ DA GAUZA BERA...

Droga beti egon da eta etorkizunean ere egonen da gure gizartean. Helburua ez da droga debekatzea izan behar. Ikasi behar dugu

drogarekin elkarbizitzen. Ez gaitzala menpean hartu eta ez dezala gure betiko portaeran eragina izan.

### ETA BUKATZEKO, OSTIRAL HONETARAKO MAHAINGURU BAT ERE ANTOLATU DUZUE...

Txus Congil, Eneka Irizar eta Josune Zaballak drogomenpekotasanaren prebentzioaren esperientzia batzuk azalduko dituzte. Beraien urte asko daramate Hernani, Altsasu eta Iruztunen eta euren esperientzia azalduko dute ostiraletan, 8etan, Aurreraren.



**Abenduaren 20an herrietako alkateak hautatzeko bozketak egingen dira Baztango 15 herrietan, baina ez du iduri jendeak hauteskunde horietan interes haundirik duenik. Egungo alkate juradoei galdegin diegu ea heldu den bi urteetan alkatetzan segitzeko asmorik ba ote duten, eta ezezko borobila eman ez dutenek oraindik pentsatu beharra dutela edota momentuan erabakiko dutela... baina baiezkorik ez dugu bakar bat ere jaso. Eta ulertzekoa da, ez baita nolanahiko lana Anizen, Elizondon edo Oronozen alkate jurado izatea. Gaia hurbiletik ezagutzen dutenek diotenez, alkate baino gehiago jornalik gabeko albinte edo alguazilak dira.**

TESTUA: ASIER GOGORTZA



## HAUTESKUNDEAK BAZTANEN

# Inork ez du herriko alkate izan nahi

**E**rraten dute-nez, garai batean baztandar batek herriko alkate izateari uko egiten bazion herritik kanporatua izaten zen berehalakoan, herbesteratua. Gauzak franko aldatu dira orduz geroztik, eta gaur egun herriak boto bidez aukeratzen du alkate, dauden hautagaien artean bere gustokoenari bozkatuz. Hori hautagairik

baldin badago behinik behin...

Izan ere, 15 herrietako alkateak izendatzeko nahiko lan izanen da igande honetan Baztan aldean. Orain alkate direnetatik, ez du ia inork lan horrekin segitu nahi, baina erreleboa ere nekez etorriko zaiela ongi dakite. Bana-bana galdegin diegu egungo alkateei, eta 15etatik 9k argi dute ez dutela alkatetzan bertze bi urtez egon nahi. Bertze batzuek, aldiz, azken momenturarte espe-

ratuko dute beren erabakia hartzeko, baina generalean ilusio haundirik ez dutela nabari da. Hala ere, batzarrean bilduta bertze inor agertzen ez baldin bada—eta seguraski horrela gertatuko da herri gehienetan—zenbaitek ez du alkate segitzea bertze erremediorik ikusten: “norbaitek hartu behar du lan hori” diote etsietsian.

Abenduaren 20ko batzarrean inor ateratzen ez bada, bozketa Errege Egunean

errepikatuko da, eta han aukeratuko da hurrengo bi urtetan herriko ordezkaria izanen dena.

### Alkatetza etxetik etxera pasatzen zen lehen

Lehenago gauzak arras desberdinak izaten ziren. Erran bezala, batzarreak izendatzen zuen herriko ordezkari nagusia, baina ez bozketa bidez. Etxe bakoitzeko pertsona bat agertzen zen batzarrean, eta denen artean erabakitzen zuten nor zen pos-

## BITXIKERIA HISTORIKOAK



**Joxe URROZ**

Historian zehar Baztango herrietan pisu haundia izan dute beti alkate juradoek. Garai batean elizan ere toki berexia gordetzen omen zieten.

Ni orain dela 25 urte etorri nintzen Baztanera, Malerreka-

koa bainaz sortzez. Hala ere, Baztango arau subsidiarioak eta legeak ezagutzen hasita ohartu nintzen zeinen interesgarriak diren. Izan ere, duela denbora gutti arte Baztangoa izandu da Nafarroako bigarren Herriko Etxea, Tuterakoa bezain garrantzi haundikoa. Baztanek orain galdu du itzala, azken 30 urte hauetan. Historikoki, ordea, arras inportantea izandu da. Zona honetako diputadoa bat Beran izaten zen eta bertzea hemen, Baztanen. Kontuan hartu Nafarroan bakarrik 7 izaten zirela. Orain, berriaz, eskualde honetan ez dugu bakar bat ere.

Lehen jauntxo aunitz zegoen Baztanen, eta oso jende berezia omen zen gainera. Felipe V. arekin baztandarrak ekonomia ministro izandu ziren, Goienetxetarrak eta Iturraldetarrak, eta horrela egin ahal izan zituzten hainbeste jauregi.

Hauteskundeei buruz, berriaz, erran behar da aspaldiko ohitura zela botazioak eskua altxatuz egitea —aurpegia emanez—, eta behin ere ez bazkal ondoran. Euskal Herrian botazio bat onartzeko goizean egin behar izaten zen nahi-tanahiez.

tu hortarako egokiena. Alkate-tza kasik etxetik etxera pasatzen zen bi urtetik bi urtera.

### Orain herri gehienetan hautagai bakarra

Duela 10 bat urte, ordea, lehen-dabiziko hauteskundeak egin ziren, eta orduztik honat afera honek interesa galdu du baztandarrentzat. Herri ttikietan hautagairik ere ez da kasik presentatzen, eta bakarren bat aurkeztekotan, hura izendatzen da automatikoki herriko alkate, konpetentzia gutti baitago. Beraz, hauteskunde hauek zentzu haundirik ez dutela ematen du. Uste hortakoa da Celestino Elizalde, Ziga-ko alkate juradoa: “*itsuski da horrelako herri ttiki batean*

*bozketa egi-tea*” dio.

Dena den, Baztango 15 herrietan betiko lekue-tan hautes-ontziak ja-rriko dira igandean, botua eman nahi duten herritarren-tzat zabalik. Toki gehienetan Herriko Etxeetan.

### Egitura administratibo berexia

Baztango egitura administra-tiboa arront berexia da, eta ai-pamen ttiki bat egitea ez da-go lekuz kanpo: Baztango he-rriak lau koartele-tan bereiz-iak daude; Erbera, Baztangoiza, Elizondo eta Basaburua. Ko-artel horietako bakoitzak be-



**Pedro ESARTE** Elizondo (1977-78-91 eta 92an alkate izana)

## «Biltzar Nagusia desagertu eginen da luze gabe»



**Alkateen artean gal-dezka ibili gara eta inork ez du bertze bi urtez postuan segitu nahi. Zergatik?**

Ni lehen aldiz Elizon-doko alkate izan nin-tzanean aitak erraten zi-dan Baztango herrietako alkateak jorialik gabe-ko alguazilak bertzerik ez zirela. Orduztik, kon-petentziak murriztu egin dizkiete, eta beraz, ge-ro eta makurrakoa da alkateen lana.

**Zein da traba edo zailtasunik haundie-na?**

Ba, seguraski, aurre-kontuak osatzerakoan alkateek ez dutela hitzik. Kargu publiko bat bete-tzerakoan dirua ebasten ibili beharra ez da ba-

tere polita. Ni lapur bat be-zala sentitu izan nintzen batzutan. Eli-zondon, izan ere, besteta-rako dirua ateratzeko ferie-tan eskatu be-har da, eta sal-tzaile batzukez dute hainber-tze pagatu nahi. Ferietan bi milioi terdi ateratzen dira, eta horrekin bestak egi-ten dira, Udalak ez bai-tu gehiago ematen.

**Beraz, lanik zailenak uzten dira alkateen es-ku...**

Bai, eta gainera ez du-zu inolako irabazirik, ez materialik eta ezta mo-ralik ere.

**Bertzalde, arras kasu berexia da Baztango antolaketa juridiko-administratiboa, ezta?**

Bai, Bertizaranan adi-bidez, bailarak badu be-re udala, eta herri gu-ziak kontzejuak dira, hau da, bere herri-ondasun propioak ditu herri ba-koitzak. Salazarren eta Erronkarin, aldiz, alde-rantzizko kasua ematen da. Han bailarak dira

Junta Generalak, eta he-rrri bakoitzak bere uda-la du. Administrazioa herriek edo bailarek era-maten duten hori da desberdintasun bakarra. Baina, Baztanen, ez di-ra ez herri eta ez kontze-ju. Izan ere, Baztango herriak lege ez daude herri bezala kontside-ratuta, ‘toki’ bezala bai-zik.

**Beraz ez diozu etorki-zun haundirik ikusten alkate juradoaren kar-guari, ezta?**

Ez. Nik pentsatzen dut hori akitu eginen dela. Azkenean bestak algu-a-zilekin egin beharko di-tuzte. Junta Generalak ez du Udalak bere esku hartu ezin dezakeen fun-tzio bakar bat ere. Uda-len erosotasunagatik Junta Generalek ez du-te ia konpetentziarik, baina zer guttiago, he-rriko alkateek aurre-kontu orokorra finkatze-ko orduan parte hartzea baino. Epe luzera, nik uste, desagertzera kondenatua dagoela. Junta Generalak ez du deustarako ahalmenik gaur egun, eta instit-u-zio batek ezin du modu horretan iraun.

re junteroa izendatzen du, he-rriko alkateekin batera urtero-ko lau Biltzar Nagusietan parte hartuko dutenak: Eguberri ondoko astelehenean, Pazko-tan, Pentekostesen eta San-migeletan egiten dira bilkura horiek, bazkari baten inguru-an beti ere.

Historikoki gehiago izaten ba-ziren ere, gaur egun Biltzar Nagusian 32 boto izaten dira guzira: Baztango alkatea eta bere 12 zinegotziak, 15 he-rritako alkateak, eta lau koar-

teletako junteroa.

Jakina denez, Balleko Udala da Baztango instituzio nagu-sia. Biltzar Nagusiak gaur egun aurrekontuak erabakitze-ko ere ez du eskumenik.

Esartek kontatu digunez, «*le-hen Junta Generalean admi-nistratzen ziren herri ondasu-nak. Baina gero konpetentzia guziak kendu zizkieten eta gaur egun bideak gainbegiratzea eta horrelakoak bakarrik egi-ten dituzte, bertze guzia legez arautua dagoelako*». ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

[ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Pu-**

**blizitatea:** Kulturkari, S.L. **Erre-**

**dakzioa:** Aitor Arozena, Asier

Gogortza, Joxemanuel Irigoien.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzio taldea:** Pello Ape-

zetxea, Juainas Paul, Bittori Te-

lletxea. **Berriemaileak:** Joseba

Azpiroz, Esteban Arozena, Jua-

na Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi

Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaio-

ne Otxandorena, Alba Fernan-

dez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor, Mar-

gari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

xel Gerendiain, Jacqueline, Eli-

xabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

kar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafa-

rrua, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

vier Etxeberria...

**Inprimategia:** Gertu.

**ttipi-ttapa** ez du bere gain har-

utzen derrigorrez, aldizkarian adie-

razitako erranen eta iritzien eran-

tzukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Be-

ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta

Sarako udalak, Bortziritako Eus-

kara Mankomunitatea, Malerre-

kako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

tea...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Eguberrietako ospakizunak

#### Eguberri bezperan gazteak gaurdiko mezara hurbiltzen dira, usaia da



Arantxa INDABURU  
Sara

Eguberri giroan sartzeko, bi aste lehenago, abenduaren 10ean-edo, izai

bat erosten dut; baina egiazkoa, ez plastikozkoa, honela bere usaina etxean zabaltzen delakoz. Nere alabekin batera bestitzen dut: kolorezko bolatxoak, girlanda elektrikoak eta izar bat puntan. Jaiotza eta izaiaren aspian haurren zapatak ematen ditugu.

Eguberri bezperan, goizetik aurrera prestatzen hasten naiz, mahaina eder bat muntatzen dut, lore sortekin eta gorostiarekin apainduz. Familia guzua elkartzen gara, denetara 20 bat lagun. Urtero etxe desberdin batean afaltzen dugu: gau hortan egiazko "Papa Noel" leihoa joz agertzen da familia guziari opariak eskaintzera arno baten truk. Goizeko 2ak arte elgarrekin egoten gara, eta biharrun goizean usaia dugu mezara joateko.

Gazteago nintzelarik desberdina zen, afaldu ondoren gaurdiko mezara joaten nintzen. Saran, gazteria gehiena gaurdiko mezara hurbiltzen da, usaia da.

Eguberri eguna, berriz, nere burasoen etxean ospatzen dugu; haurrek berriro atxematzen ahal dituzte bertze opari batzuk Papa Noelek gauean utziak, eta helduek nahi bezala on baten inguruan elkartzen gara.

#### Pertsonako 90.000 pezeta gastatzen omen dugu, eta hori kezgarria da



Kizkitza ISASI  
Ituren

Neri, printzipioz, negua ez zait gustatzen, uda sasoi nahia dut, eta egu-

berriak ere ez ditut gustoko: kontsumo gehiegi dago egunotan. Joan den egunean kontsumo datu batzuk ikusi nituen telebistan: pertsonako 90.000 pezetako batzabestekoa gastatzen dugula egunotan. Nik uste hori kezgarria den, kontsumismo haundian sartzen ari baikara. Horrek, beste aldetik, dendetako salmentak igotzea ekartzen du. Doneztebe batean, adibidez, komertzioek naberituko dituzte eguberriak, eta turronek dela edo beste gauzak direla, herri tikietak dende ere bai, seguraski.

Familia elkartzearen kontua, berriz, ongi iduritzen zait. Gure etxean gabon gauan eta eguberri egunean elkartzen gara: etxe gehienetan bezala -pentsatzen dut- opariak eta janari ona izaten ditugu, eta hurrengo egunean, berriz, bazkaria.

Herriko ospakizunei dagokienez, hemen Iturenen duela bi edo hiru urte egin genuen Olentzero bat, suziri eta joariekin, hagitz polita. Iaz, ordea, ez genuen denborarik izan deus ere prestatzeko. Mutiko gazteak ere urtero olentzeroarekin ateratzen dira karrikaz-karrika, eta neskek, berriz, jaiotza tiki batekin.

#### Gure etxean olentzero ospatzen dugu baina gurasoen etxean erregeak



Begoña ANDUEZA  
Bera


Santa Luzia egunean hasten dituguk eguberrietako ospakizunak. Gu-

re etxean olentzero ospatzen dugu, baina gurasoen etxera erregeak etortzen dira, eta horrela haurrek bietan izaten dituzte opariak. Nik gustoko ditut egun hauek, baina kontsumismo sobera dagoela uste dut. Pixko bat dirua alferrik botatzen dela iduritzen zait, eguberriak pasatuta arropa eta janariaren prezioak jausten dituzte-lakoz.

Haurrek ez dakite nor den olentzero eta nor diren erregeak, baina eskatzen hasita katalogo guzua eskatzen dute. Aurten guttiago gastatzeko asmoa genuen, Mitch hurakaneko afera horretarako dirua bidaltzeko, baina ezin dugu egin, haurrek ez baitute hori ulertzen. Bertze haurrei emateko aurten olentzerori opari guttiago eskatu behar diotela erraten diezu eta negarrez hasten dira, oraindik tikiak direlako...

Bertzalde, herrian olentzeroa egiten da urtero, haundiena eta tiki-kiena, baina ni gutti ateratzen naiz. Hala ere, ikastolako haurrek egiten duten olentzeroan hortxe ibiltzen gara gibelatik.

Zerbait eskatzekotan, olentzerori presoak eta erfuxiatuak etxera ekartzeko eskatu nahi nioke, eta arazo guziak moldatzeko.



ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneretik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

**El Salvador-tik, eskerrak emanaz:**

Hasieran zuengana jo genuen zuen laguntza eskatzeko, orain berriz, denei zorionak eman nahi dizkizuegu. Eta bihotz-bihotzez eskertu nahi dizuegu zuen parte hartzea egon diren ekintza guzietan: jaialdian, zozketan, diru-laguntzan eta emandako gauza guzietan.

Horrexegatik El Salvadorrekin adierazitako elkartasuna, eta noski, jasotako diru-laguntzak azpimarratu nahi ditugu.

Beraz, eskerrik asko eta zorionak!

Hau da bildutako dirua:

Igandeko jaialdia (sarrerak eta estatua); 527.496 pta  
Zozketa: 400.000

Irain ikastetxeko 5. eta 6. mailako salmenta: 16.885.  
Emandako dirulaguntza: 684.950

Denetara: 1.627.321 pezeta.

Oraingo gure lana hemen bukatu da, agian aurrerago zezoz egin daiteke, guk edo beste talde batek.

Agur bero bat.

CIUDAD ROMEROREN  
ALDEKO LANTALDEA.  
(EL SALVADOR)

**Ta gure mintzaira?**

Zeri buruz ari naizen? Hori xe ba, gure mintzairaz, Maillerreka, Bidasoa eta Baztango mintzaireraz, bertze Nafarroako hainbat euskalki aipatu gabe, aintzineko hiru hoiek baitire neretzat hurbi lenekoak. Eta, zein den kontua? Ba, niri guttienez sekulako kezka sortzen ditzela gure mintzaira jatorrizkuak komunikabideetan eta inguru euskaldun hontako "euskaldun berriengatik" gero eta baztertuagoak daudela. Bi alor hotan nabaritzen dut gehien, bertsolariengan errate baterako ere nabaritzen delik. Ez naiz solastuko musika taldeetaz, estatutan paratzen diren karteletaz, etab. Komunikabideetaz ari naizenezan, berexiki Xorroxin Irratiari buruz ari naiz, Tipi-ttapa komunikabide idatzia izanik, kasu ezberdina baita, nere ustez beinpin. Aitortu behar dut pena, eta lotsa pixko batekin ere bai, nahiz eta momentun denbora gehigo Iruñean pasatu hemen bino, bertan nagonin guttitan aditzen dutela Xorroxin Irratia, zenbait saiotan ezin baitut aguantatu euskara batua argi eta garbia aditzea. Deigarria dagitt Iruñean, (Euskalerria Irratian) nafarrera gehigo entzutia hemen bino, pena ere bai. Gero, gainera, iparraldeko norbait solasean adittu eta "zein mintzaira polita dun" erraten dugu, guriak deus balio ez-palu bezala. Lehen aipatu duten bertze inguru "euskaldun berriena" da. Komatxo artian, ezpaitira egiazko euskaldun berriak, aunitzetan hala balira bezala jokatzen badute ere. Garai batin, itxian euskaraz ikasi eta karrikan erdaraz egitten zutenak, orain Iruñean Hizkuntz Eskolan ari dire euskaraz "ikasten" eta karrikan batuaz mintzatzen zaizu lehen inoiz hitzik ere erraten etzizunak (nahiz eta jakin). Noski, inoiz ez aldatzea bino hobe be-

randu aldatzea bino..., ezta ba moda edo modernismoa izanen? Aipamentiki bat ere hemengo bertsolarienaz. Bihar bada, nere obsesua da bino, beti egoten naiz gure mintzaira ibiltzen duten zai eta beti bezala tristura ematen dit. Lizaso edo Egaña hunara etortzen direnin kantatzera, hemengo solasak ibiltzen ditzute eta, hemenguak berriz, batuaz. Bizkaiko txapelketako bertsuak adittu ezker, inoiz bizkaierarik adittu eztenari erdia ere ez enteintzia gerta lekiok. Gainera, noiz ibiltzen ditzugu gure euskalkiko hitzak: euskara taldeari izena emateko, txarangari izena emateko, kuadrilari izena emateko, etab. Behar bada urrutiegi joatea ematen du bino, nere konklusioa da huren atzin oraindik ere gutti-gotasun konplejua dagola. Lehen modernotasuna erdaraz egittia zen eta orain euskara batuaz egittia, bi kasutan ere, nolapaitt erratekotan, kanpotik etorritakua, beti ere itxekua baztertuz. Itxekua lotsa ematen al digu? Euskara batua beharrezkoa da, noski, bino, inguru ezberdinetara allegatzen diren komunikabideendako; bertan ibiltzeko, guriari eutsi behar diogu nere ustez. Utziko al dugu gure mintzaira galtzen?

Joseba Urrotz  
URROTZ

**UPNren bestari buruz:**

Atzo Franzisko Xabier eguna izaki, Nafarroako zaindaria, UPN alderdiaren besta egin zen Elizondon. Goizgoizetik, kanpoko jende olde batek Elizondo hartzen zuen, beren besta ospatu nahian. Batzuk autobusetan eta autotan, etab ertze ba-

tzuk berriz patrol berdetan, Elizondoko karriketako nagusi bihurtu ziren. UPNren ekinbidea besta egin behar duten herria, polizialki okupatzearen pareko baldin bada, guztiz salagarria dela uste dugu beren jokabidea. Orain arte bederen, eta Baztani dagokionez, UPN Oronoz-Mugairen Guardia Zibildako kuartela egitea erran nahi du, hemengo gazteari etxea edukitzea ukatuz. Halaber, UPN, bere alderdi besta gure herrian egitea Elizondoko karrikak Guardia Zibilez betetz, erran nahi du. Gisa berean UPN Baztanera, Iruñetik eta Erriberatik usteko nafar batzuk ekarte erran nahi du, Baztan, baztandarrak, gure erro eskualdunak, eskuara eta eskual kultura hankapean hartu eta zanpatzea. Azkenik, hainbertze polizi, kontrol eta eraso kulturala erran nahi duen UPN, guretako kanpoko korbatadun aberats batzuen pareko bertzerik ez dira, espainolak eta fatxak. Aupa Baztan gaztea eta eskualduna!

BAZTANGO GAZTE ASANBLADA

**Aresoko Herriarron Elkartearen oharra:**

GAIA: Autobiako lanak egitean sortutako kalteen ordainetan Areson egin behar diren lan osagarriak.

Azaroaren 4an Elkarrekin honetako batzuk Herri Lan Sailleko arduradunekin egon ginen, egin gabe dauden lanak noiz eta nola egingo diren jakin nahian. Esan ziguten atzerapen bat zegoela, berriz ere, eta egin gabe dauden lanak bi fasetan egingo direla:

**1.fasea.**– Seguruenik urte bukaera baino lehen egingo

dira eta 10 milioi ingurukoak izango dira. Lan hauek egingo dira:

-Gainarberako bidea (6,3 milioi).

- Trintxelekuetarako pista (3,2 milioi).

- Maingoenea Bordarako pista (0,3 milioi).

**2. fasea.**– 99ko lehen hila-beteetan egingo da, eta lan hauek egingo dira:

- Gaikoetxeko Belazean, beheko soroan, estolderia (*alcantarillado*)

- Iturrita-Olatxeta inguruan, ura biltzeko kuneta.

- Labaki parajea bi enko-fratu zati garbitzea.

- Olatxeta inguruan belazearen harresia.

- Malloak-Ubidesoro belazeetako harresia.

- Uso paradetako bideko kuneta konpontzea.

- Ignacio Labaienaren belazean erreko harresia haunditzea.

Herriarron elkarrekin kexu agertu zen lanak oso beranduz zetozelako eta aldaketa bat egiteko aukeraz galdetu zuen. Trintxelekuetarako pista egin beharrean (gutxi erabiltzen da eta mendi-tako arduradunek ziurtatu digute Larrekobordako pinudiaren –abeto beltza– aprobetxamendua ezingo dela pista horretatik atera), Belaku baserrirako pista egiteari lehentasuna ematea eta Trintxelekuetako errebuelta hobetu eta konpontzea aurreragorako uztea. Erantzun ziguten, baietz, posible zela, baina Udalak eskatu behar zuela aldaketa hori. Horregatik, Herriarron Elkarrekin Udalarik eskatzen dio, 3,2 milioi pezeta horiek jendea bizi den baserri batetarako bidea hobetzeko erabil dezala, horrela bertakoen bizi kalitatea sustantzialki hobetuz.

ARESOKO HERRITARRON ELKARTEA



 **Lander SANTAMARIA** *Elizondarra*

## XXI. menderako alkateak



**B**aztan Balleko 15 herrietan botoa emateko eguna izanen da abenduaren 20a, Eguberri aitzeineko igandea, 1999-2000 urteetan alkate izanen direnak aukeratzeko. Bizilagunek, Ordenantzek, Kotoek eta Paramentoek I. kapituluaren diotenaren arabera, Herriko Etxean edo ohitura duten tokian elkartuko dira, eta "kargurako gai direnen artean herriko pertsona bat aukeratu dute botu gehiengoaren bidez". Hauteskunde batzarrea XX. mendeko azkenaren izanen da, eta alkate berriak XXI. mendeko lehenbizikoak; dudarik gabe gertaera sinbolikoa da hori, baina errealitatea ikusiz, arrotz kezkagarria ere bada. Hauteskunderako azken bi deialdiek argi utzi dute baztandarrek "res pública" deitutakoa gero eta guttiago estimatzen dutela: kandidatu bakar bat herri bakoitzean, aurkezteko azken orduan konbentzitu, eta bozketarik gabe automatikoki aukeratu. Gero eta boluntario guttiago dago esfortzu aunitz eta onura eta poz gutti ekartzen dituen kargu hau betetzeko. Egoera bereziki kezkagarria da Elizondon, balleko herriko jendetsuena, eta dituen ezaugarrietatik ez du iduri bakarrik pertsona baten sakrifizioz bakarrik aitzinera eramatea posible denik. 1994. urtean, hautagairik ez

zen aurkeztu eta bozketa errepikatu behar izan zen, 1996an bezalaxe, eta egoera azken momentuan moldatu zen. Bi kasuetan, aretxea hiltegi joaten den bezain burumakur joan zen hautagaia batzarrera. Nola eta zergatik ailegatu dira gauzak egoera honetara? Norberaren herriko gaurzengatik gero eta elkartasun eta interes guttiago dago, batetik, eta Ordenantza, Koto eta Paramentoak zaharkituak gelditu direla bertzetik. Gaur egun hutsaren hurrengo dira. Azkenik, bere

**Baztango Balleak du hitza, eta behin betikoz erabaki behar du bere instituzioetan eta legedi autoktonoan sinesten duen. Horrela bada martxan jarri beharko ditu berehala, edo gainerakoan, argiak itzali eta goazen hemendik.**

garaian herri ondasunen kudeaketan demokrazia eta katezismoaren adibide izan ziren instituzioa, Junta Generala gaurkotzeko erabateko beharra dago. Baztango Balleak du hitza, eta behin betikoz erabaki behar du bere instituzioetan eta legedi autoktonoan sinesten duen, eta horrela bada martxan jarri beharko ditu. Gainerakoan, argiak itzali eta etxera joaten ahal gara.

 **Mikel BEZUNARTEA** *IRATXE kontsumitzaileen elkarte*

## Eguberrietako kontsumo joerak



**H**otzak eta elurak aurre hartu diote Olentzerori eta, nola ez, baita mota guzietako iragarkiek ere. Telebistan, egunkarietan, aldizkarietan, postontzietan...

Publizitatearen bidez gauza eta zerbitzuen berri ez ezik horien beharra sortarazten digute. Psikologo talde batek egindako ikerketa baten arabera, publizitatearen eraginez kontsumitzaile bakoitzak aldeaz aurretik pentsatzen duena baino bi aldiz gehiago erosten du batzertze. Urtero egiten diren estadistikak ere hildo beretik doaz, urte-urte gure kontsumoa ederki haunditzen dela baieztatuz. Iaz, errate baterako, lagun bakoitzeko gastua laurogei mila pezetakoa izan zen eguberrietan. Lan polita egiten dute publizitatearen munduan elkarlanean aritzen diren psikologo talde eta mezu-egileek. Izan ere, askatasuna, zoriontasuna eta gureak egin ditugun hainbat balore trebezia haundiz erabiltzen dituzte beren meziek eragin zuena izateko. IRATXE k lotu du berriki autoan abiada haundiaz gidatzera bultzatzen zuen iragarki bat telebistatik kentzea, baino hori ez da adibide bat baizik. Egungo legedia murrizta gelditzen da publizitatearen indarraren ondoan. Honela, koloreak, hitzak eta esaldi zorrotzak, azpimezuak balira bezala, gainera heldu zaizkigu egunero. Adibide gisa, supermerkatuetan

kontsumoa bultzatzeko xedez erabiltzen dituzten trikimailuak: produktuen kokapena, koloreak, musika... aldizkari batek zioen bezala 'ez pentsatu, erosi' lelopean ahalegin guziak egiten dituzte behar duguna eta behar ez duguna saltzeko. Azpijoku horren aurrean 'itsu eta muttu' gelditzen gara kontsumitzaileok. Hone-la, ingurugiroarekin arazotak eta gizartearen ezberdintasunak argudiatuz kontsumo kontziente eta arduraduna aldarrikatzen dugunok

**'Ez pentsatu, erosi' lelopean ahalegin guziak egiten dituzte behar duguna eta behar ez duguna saltzeko.**

oztopo ikaragarriak aurkitzen ditugu gure mezuak zabaltzerakoan.

Ez al da kontraesan izugarria kontsumoa bultzatzen den bitartean inguruarekiko arazoak bideratzeko kontsumoa murriztu behar dela lagun artean onartzea? Ez al dakigu zenbait estatuk publizitatean gastatzen dutena bertze batzuek jateko duten presupuestoa baino hamaika aldiz haundiagoa dela? Ongi legoke kontsumoa murriztu, gauzak berrerabili eta hondakinak birtziklatu behar direla gogoan izan eta egunotan egi bihurtzea.

Eguberrietan inoiz baino gehiago hobe genuke publizitatearen komunikazioa modu subjektibo eta interesatua dela kontuan izatea. Agian horrela aintzinako Olentzerok xumea izanen da berri eguberrietako mezularia.



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 98ko abenduak 13a

«Txirringaren aienean bidaiatuz, guk gerorrek bidaian ikasi eta gozatu adina ikasten eta gozatzen badu irakurleak, aienerik gabeko patxadan abiatuko gara, bizitzen segitzeko grinaz».

**Amaia ELOSEGI**  
**Esther MUGERTZA**  
"Txirringaren aienean"  
liburuaren egileak  
Nafarkaria 98-XII-13

«Leitza eta Aresoko hizkerak ere badira Nafarroakoak.».

**Mikel OLANO**  
Filologoa  
Nafarkaria 98-XII-13

«Giza Eskubideen Deklarazioak herritar bakoitza kontzientzia-tzeko balio izan du orain arte. Gogoratu behar da giza eskubideak toki auniztan ez direla errespetatzen, eta munduan injustizia haundia dagoela oraindik».

**Iñaki PERURENA**  
Leitzarra  
Diario de Navarra 98-XII-13

◆ **Norekin abestuko huke gustora?**

❖ Lertxundirekin, Donostian Orkestarekin emandako kontzertuan.

◆ **Nori kantatuko zenioke etxeko leihopetik?**

❖ Aditzeko prest dagoen edonori.

◆ **Ze kanta?**

❖ Euskal kantu zaharren bat.

◆ **Pertsonai historiko bat?**

❖ Che Guevara

◆ **Olentzero bahintz, ikatza norendako?**

❖ Pinochetendako eta bera babesten dutenendako.

◆ **Eta oparirik hoberena?**

❖ ...24rako pentsatuko diat.

◆ **Eguberrietan oporretan nora?**

❖ Xoko hauetan aski gustora egoten nauk.

◆ **Eguberriak: olentzero, hotza, turroia, txanpaina...**

❖ Kontsumismoa, espektatiba faltsuak, bestondoak...

◆ **Egindako "inoxentada" bat?**

❖ Arras txarra nauk broma eta txisteendako.

◆ **Urtezaharreko plana?**

❖ Zigan lagunekin afaldu, Elizondora gan eta...

◆ **Urte berri-berri, zer dakarrazu berri...**

❖ Bake prozesua errealitate bihurtzea.

**Fernando JUBERA**

ZIGA

'Amairko Kantoreak' taldekoa

GRUPO  ZURICH

**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 948 63 07 63

**Gobierno Vasco****OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 948 592 043 • **ORONÓZ-MUGAIRI****ttipi-ttapa**  
internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>  
E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**PIKABEA**

Molinero drogerian  
galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

**EDARRIAK**

Hidasa K/62 - 31700 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

**LEBARRA**

## Misiolariek Nafarroako Gobernuaren Urrezko Domina jaso zuten

Eskualdeko hirutan hogeia dira munduan barrena

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Urrezko Domina eskaini zien Xabierko Franciscoren egunean Nafarroako 1.584 misiolariak. Hauen artean hirutan hogeia gure eskualdekoak dira. Nafarroako Gobernuak, erlijio orden ezberdinetan bertsuenen alde egiten duten lana eskertu nahi izan die guzkiei.

Misiolariak Iruñera ekartzea ezinezkoa zenez, beraien izenean Jose Luis Garaioa, Santiago Marcilla eta Sagrario Larralde jaso zituzten dominak. Gogoratuko denez, bi apezak Sierra Leonan eta moja Ruandan bahituak egon ziren urte hasieran.

Ondoko zerrendan ageri dira eskualdeko

misiolarien izen-abizenak, sorterrak eta jaio-tze eguna eta gaur egun dauden herrialdea. Datuak Iruñeko Artzapezpikutzako Misioen Delegazioarenak dira, eta azken aldiz urrian berriro zirenez, baliteke hauetako norbait lekuz aldatua edo hila ego-tu.

Nabari denez, misiolari gehienak emakumeak dira eta gure herrien artean, Leitza da misiotan lagun gehien duena. Halere, aipagarria da Azpilkueta bezalako herri tiki batean, adibidez, lau izatea. Bertze datu azpimarragarria misiolarien adina da, gehienak 60 urtetik goitikoak baitira. Zaharrenak 90 urte beteko ditu datorren urtean eta gazteenak 48 ditu.

| Izen-deiturak                                | Herria       | Sortze eguna | Non dago?      |
|----------------------------------------------|--------------|--------------|----------------|
| Andueza Sarratea, Mari Cruz                  | Almandoz     | 1943-08-11   | Paraguay       |
| Maia Dendarieta, M <sup>re</sup> Dolores     | Amair        | 1932-01-15   | Argentina      |
| Perurena Loiarde, Demetria                   | Arano        | 1943-11-23   | Argentina      |
| Zabala Zabala, Presentacion                  | Arano        | 1941-11-21   | Estatu Batuak  |
| Larretxea Grajirena, Ceferina                | Arantz       | 1913-08-06   | Txile          |
| Lukanbio Gonzalez, Ines                      | Arantz       | 1939-10-02   | Kamerun        |
| Irigarai Urrutia, Pablo                      | Arizkun      | 1923-04-28   | Japonia        |
| Iturralde Zozia, Maria Jesus                 | Arraioz      | 1933-06-06   | Paraguay       |
| Iturralde Zozia, Martina                     | Arraioz      | 1930-01-23   | Brasil         |
| Ziordia Gerendiain, Desposorios              | Arraioz      | 1918-03-12   | Brasil         |
| Ariztia Ainziburu, Julia                     | Azpilkueta   | 1924-12-10   | Argentina      |
| Ariztia Ainziburu, Pilar                     | Azpilkueta   | 1933-01-25   | Kenia          |
| Bidart Mendiberri, Maria Isabel              | Azpilkueta   | 1937-11-14   | Korea          |
| Koskarat Ariztia, Pilar                      | Azpilkueta   | 1922-10-11   | Argentina      |
| Agirre Agirre, Pilar                         | Bera         | 1913-01-01   | Mexiko         |
| Elizalde Irazoki, Jesus                      | Bera         | 1933-12-19   | Ekuador        |
| Zelaieta Aramendi, Esperanza                 | Bera         | 1942-08-01   | Bolivia        |
| Goikoetxea Aizkorbe, Elida                   | Bera         | 1922-04-13   | Argentina      |
| Errandonea Errandonea, Lorenzo               | Bera         | 1928-06-28   | Japonia        |
| Arandia Arribillaga, M <sup>re</sup> Itziar  | Bera         | 1936-02-23   | Marokko        |
| Santesteban Iriarte, Felipe                  | Berroeta     | 1926-07-19   | Venezuela      |
| Illunbe Arretxea, M <sup>re</sup> Aranzazu   | Doneztebe    | 1933-02-03   | Mozambike      |
| Zugarramurdi Zozia, Juan Jose                | Doneztebe    | 1926-04-11   | Venezuela      |
| Bereau Andiarrena, Javier                    | Doneztebe    | 1948-07-16   | Mali           |
| Karikaburu Lazkoz, Juan Cruz                 | Elbete       | 1925-09-14   | Venezuela      |
| Mariezcurrera gaste, Agustin                 | Elgorriaga   | 1934-12-25   | Mexiko         |
| Amorena Bikondoa, Juana M <sup>re</sup>      | Elizondo     | 1950-01-18   | Zaire          |
| Belzunegi Meaka, Manuela                     | Elizondo     | 1922-10-03   | Venezuela      |
| Juanikotena Urrutia, Claudia                 | Elizondo     | 1944-07-17   | Argentina      |
| Urrutia Etxarte, Francisca                   | Elizondo     | 1942-04-03   | Ghana          |
| Hernandorena Mariezcurrera, Asuncion         | Eratsun      | 1938-08-21   | Venezuela      |
| Mariezcurrera Ezkurra, Ignacia               | Eratsun      | 1917-05-24   | E. Dominikarra |
| Hierro Irigoien, Maria Teresa                | Erratzu      | 1929-11-24   | Txile          |
| Mihura Etxeberria, Basilia                   | Erratzu      | 1928-05-03   | Argentina      |
| Urrutia Iriarri, Maria                       | Erratzu      | 1915-05-06   | Argentina      |
| Perugorria Danboriena, Jesusa                | Etxalar      | 1924-12-22   | Marokko        |
| Arribillaga Danboriena, Maria Isabel         | Etxalar      | 1936-09-21   | Filipinak      |
| Sanzberro Arburua, Fernando                  | Etxalar      | 1941-02-11   | Mali           |
| Juanena Gartziaarena, Josefina               | Ezkurra      | 1933-04-02   | Venezuela      |
| Sagastibeltza Ezkurria, Juan Cruz            | Ezkurra      | 1937-08-01   | Ekuador        |
| Trantxe Etxeberria, Tomasa                   | Igantzi      | 1926-12-20   | E. Dominikarra |
| Sagaseta Ariztegi, Maria Jesus               | Ituren       | 1930-01-16   | Estatu Batuak  |
| Zabaleta Zestau, Juana                       | Leitza       | 1935-03-15   | Kuba           |
| Mujika Astibia, Josefa                       | Leitza       | 1939-03-27   | Txile          |
| Huarte Juanmartiñena, M <sup>re</sup> Isabel | Leitza       | 1924-11-18   | Kolonia        |
| Martinez Rello, Manuela                      | Leitza       | 1924-03-07   | Kolonia        |
| Alkoz Arregi, Maria Dolores                  | Leitza       | 1937-01-24   | Paraguay       |
| Sukunza Sagastibeltza, Maria Jesus           | Leitza       | 1943-11-23   | Argentina      |
| Urkiola Zestau, Maria Asuncion               | Leitza       | 1945-12-23   | Paraguay       |
| Altzugarai Arburua, Dionisio                 | Lesaka       | 1909-04-08   | Panama         |
| Telletxea Telletxea, Alberto                 | Lesaka       | 1929-02-16   | Brasil         |
| Zubigarai Iturria, Conchita                  | Lesaka       | 1928-07-19   | Bolivia        |
| Sarobe Aldabe, Josefina                      | Lesaka       | 1917-01-21   | Mexiko         |
| Bengoetxea Esparza, M <sup>re</sup> Sagrario | Oieregi      | 1926-06-08   | Venezuela      |
| Ziganda Lejarreta, Concepcion                | Oitz         | 1921-10-31   | Nikaragua      |
| Zugarramurdi Elizondo, Maria Pilar           | Sunbilla     | 1936-02-10   | Venezuela      |
| Orkin Maisterrena, Maria Pilar               | Ziga         | 1939-08-17   | Venezuela      |
| Sarratea Elizaintzin, Josefina               | Ziga         | 1948-03-18   | Kolonia        |
| Uranga Goienetxe, Justina                    | Zugarramurdi | 1920-04-13   | Peru           |
| Elizalde Apestegia, Agustin                  | Zugarramurdi | 1933-01-03   | Ekuador        |



**ROMANO PINTURAS**  
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.  
© 948631076 • BERA

**Lanchas**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



Altzate, 19•948630786 • BERA

**Dia %**  
Autozerbitzua deskontua

**ROMANO PINTURAS**  
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.  
© 948630941 • 948631137 • BERA

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
© 948631106  
BERA  
Boda eta banketeak ematen dira

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

**Hamabostero ofertak**  
Zatoz eta ikusi  
Eztegara, 6  
© 948631403 • BERA

# Abenduaren 19an egingen zaio ongietorria Joxelu Etxeberriari

Manifestazioa eta afari herrikoia antolatu ditu Herri Ekimenak

ASIER GOGORTZA

Ortzegun honetan, hilak 17, utziko dute libre Joxelu Etxeberria beratarra, 8 urte luzez penintsulako hainbat gartzelatan preso eduki ondoren. 1990eko uztailan hartu zuten preso, eta zigorraren hiru laurdenak 1996. urtean bete zituen arren ez dute kondena osoa bete arte libratu.

Gartzelako atarian esperoan izanen ditu Beratik autobus batean Monterroxoaraino (Galizia) joandako lagun eta senideak.

Bortzirietako Herri Ekimenak, bertalde, ederkiki merezitako ongietorri eta omenaldia prestatu du asteburu honetarako. Agerratik hasi eta Altzateraino herria gurutzuko duen manifestazioa egingen da larunbatean arratsaldeko 5etan, eguberrietarako euskal preso guziak Euskal Herrira ekartzeko, eta kondenaren 3/4ak bete dituzten presoak kanpora ateritzeko eskatuz. Manifestazioaren ondotik Joxeluri omenaldi ttiki bat egingen zaio Altzateko plazan (euria egiten badu Altzateko frontoian), eta gero poteoa egingen da ostatueta barna. Eguna ongi akautzeko afari herrikoia izanen da Zalain jatetxean.



## Galiziako Silleda herriarekin anaitasun besta

Joan den abenduaren 6an musika eta dantza galiziarrez bete zen herria. Izan ere, Bera eta Pontevedrako Silleda herria anaitasun besta batean elkartu baitziren. Alde batetik, gaita doinu artean pulpoa edo *riveiroa* bezalako produktu galiziarak dastatzeko modua izan zen Eztegarra pilotalekuan. Ondoren Trasdeza abesbatzak bere saioa eskaini zuen, baina seguraski eguneko protagonista nagusiak dantzariak izandu ziren. Triskele eta Gure Txokoako dantzariak hobekien dakiten gisan dantzatu zuten Kultur Etxean bertan. Erran behar da Triskele taldea Donostiakoa dela, baina galiziar jatorri duten donostiarrek osatzen dutela.

## HIRU ETORKIN ATXILOTUAK

Tanger-tik (Marokko) Beraraino kamioien erremolkeetan gordeak etorri ziren hiru etorkin atxilotu zituen joan den astean Guardia Zibilak. 19 eta 25 urte bitarteko hiru etorkinen asmoa Italiaraino ailegatzea zen, han beren senideekin elkartzeko. Tangertik Algeciraseraino ferry batean gordeak joan omen

ziren, eta penintsula osoa beheitik goiti Transportes Bidasoako kamioietan gurutzatu zuten, botil tapoi artean sartuak.

Behin Berarat ailegatuta, kamioilariak hiru gazteak kamioian zuehala ohartu ziren, eta Guardia Zibilari egin zioten dei. Hiru gazteek mendira ihes egin bazuten ere segituan harraipatu zituzten. Atxilotu ondotik bi egun zera-

matela deus jan eta edan gabe erran zuten. Polizia espainiarraren esku gel-ditu dira orain hiru marokkoarrak, eta kanporatze agindua etortzen den bitartean libre utzi dituzte.

## NAFARROAKO GOBERNUAK 40 MILIOI IKASTOLARI

Nafarroako Gobernuak Labiaga ikastolarentzat 40 milioiko dirulaguntza onartu du.

## flash

### Udal zergak ordaintzeko epea

Abenduaren 7tik datorren urteko urtarilaren 16ra arte zabaldua dago 1998ko hirugarren hiruhilabeteko uraren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu erreklargua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

### Baserritarren hauteskundeak

Gaur, abenduak 17, botua emateko eguna dute baserritarrek, Nekazal Ganbara osatzeko bozketak egingen baitira Nafarroa osoan. Horretarako, goizeko 10etatik 7tara idekia egonen da Kultur Etxea.

### Moldaketak

Udalbatzarrak berriki erabaki duenez, Orsa S.L. enpresak egingen ditu herria zeharkatzen duen errepidearen hobetze lanak.

### Eguberrietako torneo

Toki Ona kiroldegia bertze urte batez prestatu du gabonetako futbito torneo. Heldu den abenduaren 21, 22 eta 23an kanporaketak jokatuko dira, eta 28,29 eta 30ean, berriaz, finalak.

**BOTXO**  
**ostatua**

Tfnoa: 948 630 052  
Zalain Auzoa, BERA



**Ostargi**  
**Optika**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

**SAROB**  
**okindegia**

**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



# LESACA



Hainbat opari jaso zituen Patrizio Goienetxe preso ohiak bere omenaldi egunean. Tantirumairu dantza taldeak ere berea egin zion, Lesakako Aurrekua dantzatzuz.

TTIPI-TTAPA TB



## flash

### Oihanberritzea Mikelgorrin

Mikelgorri inguruan egin beharreko oihanberritze proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak. Ingurugiro sailak. *Viveros y Repoblaciones* enpresa publikoak egingen ditu lanak, oso-osorik Iruñetik ordainduko diren 10.972.542 pezetaren truke. Udalak, bere aldetik, landareak sartzeko intentzioa du leku berean, 7 milioiko aurrekontuarekin.

### Sokatira taldeak

Nafarroako txapel bat eskuratzeko azken aukera izanen du 560 kilotan larunbat honetan, abenduak 19, arratsaldeko 5etatik aitzinera Betelun.

## Omenaldi hunkigarria jaso zuen Patrizio Goienetxe preso ohiak

Herriko kultur, kirol eta gizarte talde ugari berekin egon ziren

AITOR AROZENA

Abenduaren 5eko gau hotza goxatzeko moduko omenaldi berroa eskaini zitzaion Patrizio Goienetxe preso ohiari. Bere etxetik plazarako bidea ikurriñaz inguratuak egin zuten Patrizio eta bere familia eta lagunek. Plazan esperoan zeuden bortzehun bat lagunek txalo zaparrada batekin agurtu zuten preso ohiak. Tantirumairu dantza taldekoen aurrekua eta Senideak erakundearen ongietorriaren ondorengo etorri zen opariaren txanda. HB, Zutik, Lan Taldea, LAB, Jarrai, Elkarri, Beti Gazteko jokalaria, Herri Eskola, Bortzirietako Bertso Eskola, Baztango Gazte Asanblada, Bortzi-

rietako Intsumisioaren Aldeko Taldea... eta tartean utzi izanen dugun bakarren bat, denek nahi izan zuten opariaren bat eskaini eta Patriziori bersarkada bat eman.

### ESPETXE EZBERDINETATIK AGURRAK

Oparirik politenak, halere, ukitu ezin zirenak izan ziren segurasak. Tasio Erkiziak Basauriko espetxetik igorritako bertsoak, Iñaki Fagoagak Cuencatik eta Patriziorekin Langraitzeko ziegetan egondakoek idatzitako eskutitzak edo Murtziako presoek zinta batean grabatutako ahotsak eztarrietan gorapilo bat baino gehiago sortu zuten. Ustegaberik ere izan zen, kaputxadun batzuk kioskora igo eta Frantzia

eta Espainiako banderak erre zituztenean.

Plazako ekitaldia *Eusko Gudariak* kantatzu akautu zen, baina

ongietorri bestak izan zuen segidarik, Koxkonta jatetxean egindako afarian kasik 200 lagun bildu baitziren.

### Paleta goma txapelketaren finala ingandean

Igande honetan, abenduak 19, arratsaldeko 7etan jokatu da Batzoki elkarteak bigarren urtez antolatutako paleta goma txapelketaren final haundia.

Guzira hamasei bikotek parte hartu dute txapelketan, zortzi bikoteko bi multzotan banatuak. Asteburu honetan final laurdenak eta finalerdia jokatu dira. Final laurdenetan Ibarra-Pernaute (Sunbilla-Oronoz), Ormaetxea-Atorra (Oizartzun), Txoperena anaiak (Igantzi), Eugi-Hita (Igantzi), Apezetxea-Ganboa (Doneztebe), Ugalde-Zumeta (Pasaia), Salaberria-Salaberria (Urnieta-Hernani) eta Larralde-Lakosta (Urdazubi-Ziga) aritu dira.

### Eguberrietako ospakizunak gainean ditugu

Urte sasoiak agintzen du eta horren arabera, Eguberrietako ekitaldietan murgilduko gara laster.

Eguberri bezperan olentzeroak baserriz baserri –goizean– eta karrikaz karrika –arratsaldean– ibiliko dira. Eguerdian, jaiotzekin batera, lehiaketa izanen dute plazan.

Urtezahar gauean, dagoeneko ohitura bihurtu den abesbatzakoan ibilaldia izanen da. Diostesalbe eta bertze hainbat eguberri-kantu eskainiko dituzte, Zahar Etxeko bisita aiantzi gabe.

Errege bezperan, azkenik, Errege Kabalgata aterako da eta plazan Jaiotza biziduna ikustea espero da. Ongi pasa eta urte berri on denei!

**KATTU**

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

© 948627573 • LESACA

**ANA**
**janaridenda**

Bittirria, 41 • © 948637944

**LESACA**
**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
**LESACA**
**KIKKUR**  
**Ileapaindegia**

Tel: 948 637429

Bittiriako Plaza, 3 behea  
**LESACA**
**LORE**  
**ETA LANDAREAK**

Frain auzoa • © 948637826  
**LESACA**



# MARTIKO:

## Ahate produktuetan espezializatuak

**M**ARTIKO n Moulard arrazako ahateak hazten dituzte, artoarekin gizenduak. Antzarak eta aha-te hauek dira egiazko *Foie Gras*-a produzitzeko oinarriarik tradizionalena. *Foie Gras* izendapena, Frantzia eta Europako arauak espreski artoz gizen-dutako antzara eta ahateen gibel koipetsuei ematen dieten izendapena da.

MARTIKOren aktibitatea nabarmen sendotu da azken urteotan. Gaur egun MARTIKO da lehenengo banatzailea hotel eta jatetxeetako *Chef* ospetsuenendako, eta baita ere goi-gastronomian espezializatuak diren harategi eta jana-ridenden artean.

### Ahate hazkuntza

Moulard arrazako ahateekin haztegi garrantzitsuak di-

tu MARTIKOK. Haztegi horietan lau hilabetetan hazten dira ahateak mendian belagi eta toki irekiak erabiliz eta teknika naturalekin lagunduak.

Prozesu osoan osasun kontrol zorrotzenak betetzen direla segurtatzen dute teknikoei. Izan ere, hazterakoan eta hiltzerakoan osasun kontrol ugari egiten zaizkie ahateei, etxeko teknikoak eta tekniko ofizialak kontrolaturik.

Ahateak hazteko prestatuak diren zelaietan, MARTIKOK 36.000 ahate izaten ditu gizen-tzen, eta kantitate hori haundiagoa da merkatuko eskaeraren arabera. Horrek erran nahi du, gaur egun Espainian MARTIKO dela produktorerik haundiena.

**Ahateak hazi eta produktua merkaturatu arte, prozesu osoa egiten du MARTIKOK Arantzan eta Beran. Bitarte horretan kalitateari ikaragarritzko garrantzia ematen zaio, eta orain estrenatu duen lantegi berriarekin oraindik gehiago hobetuko du kalidadea.**

### Instalazioak

11.000 m<sup>2</sup>ko orube batean, fabrikazioan eta kalitate kontrolan teknologia berrienak dituen instalazio modernoak egin ditu MARTIKOK, bere produktuak kontsumitzera-koan oraindik garrantzia haundiagoa izateko.

### MARTIKOren produktuak

Garantia oinarri bezala hartuta, MARTIKOK honako produktu hauek jartzen ditu merkatuan:

- **PRODUKTUFREKKOAK:** 'Hutsean ontziratuak' eta behar bezala tinbratuak. Boltsa bakoitzak bere pisua eta produktuaren ontziratze eta iraungitze data agerian ditu.

- **PRESTATUAK DIREN PRODUKTUAK:**

MARTIKO produktuen kalidadea, Frantzian gisa bereko produktuek dutenaren parekoa da. Halaxe segurtatzen dute produkzioan adituak diren teknikoei. Produktu hauek lata, kristalezko ontzi edo hutsean ontziratutako poltsetan merkaturatzen dira, itxura eta presentazio hoberenarekin. Inportatzen diren gisa bereko produktuekin konparatuta, arras prezio onetan saltzen dira MARTIKOren produktuak, kalitaterik hoberena kontuan hartuta.

# ETXALAR

## Baserri auzoen mapak paratuko dira

Herri osokoa ere bai, herri sarreran

PELLO APEZETXEA

Gobernutik espero zen dirulaguntzarik eskuratu ez bada ere, Cederna-Garalurrek agindutako ehuneko hamarra ordainduko du, eta gainerakoa Udalak aintzinetik onartutako dirutik egingen da. Momentuz ez dira pentsatutako panel guziak paratuko, bai, orde, auzo bakotxean bat bedere. Panel horretan auzoko baserri izen guziak eta bideak ikusten ahalko dira. Gainera, herriko auzo guziak erakusten dituen panela ere paratuko da herriaren sarreran. Horrela, kanpotik etortzen denak edozein baserri-tara jotzen ahal izanen du, inori galdezka ari gabe ere, auzoaren eta etxearen izena baldin badaki. Etxalarren bezala, Bortzirietako ber-

tze herri batzuetan ere paratuko dituzte auzo mapak.

### Larraburua elkarteak bere eguna ospatu zuen

Xabierko San Frantzisko egunean, hildako sozio edo bazkideen oroitzapena mezan egin ondotik, bere Larraburuko biltokia bete zuen bazkaltzerakoan. Bazkalondoko musika eta dantzaldiak arratsalde osoan luzatu ziren.

### Landagain Eskolako Guraso Elkar-teak junta berritu du

Legez dagokion bezala, Juntaren erdia berritu du Guraso Elkar-teak. Isabel Sanzberro, Pakita Alzuguren eta Tere Martikorenak utzi duten tokia M<sup>a</sup> Jose Indaburu, Izaskun Arbu-

rua eta Marta Villamayorrek beteko dute.

### Zubi berritzea

Etxeberriko bordako zubia berritzeko dirulaguntza Gobernuari eskatu dio Udalak. Egurrezkoa da orain artekoa, eta sendoxeagoa nahi litzateke egin oraingoan. Baserrikoek Udalarri galdetu diote laguntza, eta honek Gobernuari.



### Herri arteko jokoak

Herri arteko Jokoak alai eta atseginak suertatu ziren, egin zituztenentzat entretenigarriak, baina baita ikustera bildu zen jendearentzat ere. Herri desberdinetako gazteen harremanak indartzeko ere segur baliagarriak izanen direla. Azkain, Bera, Sara eta Etxalarko Elkar-teek antolatu dituzte.



### 80 urte betetakoei omenaldia

80 urte aurtan bete dituzten elkartekideei omenaldia eskeini zien Larraburua Elkar-teak, Xabierko San Frantzisko egunean: Martina Ozkariz, Asuncion Elizalde, Jose Juan Pikabea, Jose Mari Sansiñena, Benedikta Sanzberro eta Zenona Zubieta izan ziren omenduak.

**XATUBETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**Ixema Etxarte**  
Zolen akutxilatze eta  
bernizatze profesionala  
© 948 637439 • 31700 LESAKA

**Mannel Zamorano**  
Bernizadurak  
Pinturak  
orohar  
Bittiria, 37 • LESAKA • ☎ 989 042 671

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe berriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako  
aholkularitza-zerbitzua  
hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektnra bulegoa  
Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
sukalderako haltzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxe: 948 637 266

**ANTZAZELAS**  
Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317  
**HARRI NATURALA**  
ATERATZEA eta LANTZEA  
Antzinaldeak Tximiniak  
Angeluak Erilaizak  
Orma antzinak Moldurak  
Leihok Zokaloak  
Ateak Hilariak  
Arkuak Marrazkiak  
Pilareak  
'Abujandakoa' Mazona  
Zahar antzekoa Tzaqueana  
**ZINTARRIAK**  
ADOKINAK  
ZOLAK



# IGANTZI

## Abesbatzaren kontzertuak eguberrietan sartuko gaitu

Dena prest olentzeroak karriketan ikusteko ere

### OSKAR TXOPERENA

Larunbat honetan izanen da urtero herrian bertan Igantziko Abesbatzak eskeintzen duen kontzertua. Aurten ekitaldiz beteriko urtea izan dute, eta urtariletik aintzineraz berriz ere patxadaz hasteko gogoarekin omen dabilta. Kanpoan eskeinitako azkeneko kontzertua Donezteben izan zuten, Bortzirietako Giltzarri Abesbatzarekin batera. Pozik etorri ziren bertatik, bai kontzertuaren emaitzagatik eta baita Doneztebeko Mendi Abesbatzak egindako harrerarengatik.

Doneztebeko Abes-

batza aipatu dugunez, Igantzin eman beharreko kontzertua, Kultur egunetan egitekoa zena hain zuzen, urtarilaren 9an izanen da azkenen. Gauza ederrak aditu ditugu talde honetaz eta egun horretan izanen dugu aukera baiezatzeko.

### Traktoreen IATa

Joan den astean izan zuten lehendabiziko aldiz herriko traktoreek IAT edo "ITV" a pasatzeko aukera edo beharra. Ez omen zen soberra gogorra egiten zuten azterketa, baina seguraski gero eta gogorra- goak izanen dira denborarekin. Hoge izan



### Udazkeneko Kultur Egunak

Urtetik urtera giro hobearakin doazkigu udazkeneko Kultur egunak, ongi finkatutako ekitaldiak baitira dagoeneko. Abenduaren 4an hasitako egitarauan ia ia denetik izan dugu 8a bitartean. Ezin izanen genuke deus azpimarratu, harrera hagitz ona izan baitu programa osoak. Zahar-etxean egindako ekitaldirik jendetsuena Mikelats taldearen antzerki emanaldia izan zen, bete-bete egin zen eta. Kanpoan, berriz, abenduaren 8an egun guziz egindako Etxeko produktuen erakusketa. Ez zuen arrakasta txarra izan etxetan prestatutako janarien degustazioak! Tartean, berriz, Leitzarrek egindako "40 ordu" filma ikusgarria eta Marsel magoak eta Trokolo taldeak eskeinitakoak. Lan ederra aurten ere antolatzaileek egin dutena!

ziren azkenean azterketa pasatzera hurbildu zirenak, baina jakina, guk dakigun horiek hemendik aintzineraz errepideetan ikusten dituztenean bertze zerbait eskatzeko aukera izanen dute.



IATa pasatzen

### Azienden deklarazioa

Abenduaren 17an, arratsaldeko 3tan akautuko da azienden deklarazioa egiteko epea Herriko Etxean. Hau tenorez leitzen baduzu, badakizu, laisterka joan.

**BERRIZKUN**  
CONSTRUCCIONES MECANICAS

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzioko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**KULTUR ETXE AURREAN**  
BERRI

UTXERRE  
KULTUR ETXE AURREAN  
BERRI

948 63 15 21

**JOPLIN**

**Gazteen Moda**

Juan Arana, 10 • 20300 IRUN  
Tel. 943 61 58 48

**ATM S.A.**

**AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.**

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**Iñaki ETXEBERRIA**

**AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA**

**MENGHINI AKORDEOIAK**

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

Deskontuak akordeoiak erostera

**DOMINÉNEA Etxea**  
San Andres Karrika, 40  
NARBARTE  
© 943 - 61-50 55

**EROSLE**

**LESACA**

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bitirria, 67 • © 948637264

# ARANTZA

## Eguberrietako futbito txapelketa antolatu dute gazteek

Herritar guziei zabaldua, abenduaren 24tik 31ra jokatu da

ELIXABET ETA GARBIÑE

Arantzako gaztediak Eguberrietako lehenbiko futbito txapelketa antolatu du. Txapelketa hau abenduaren 24tik 31ra bittarte luzatuko da. Edozein aranztarrek parte hartzen ahal du txapelketa honetan, kondizio bakarra, sei-jokalariko taldea osatzea izanen da.

Ligaxka moduan jokatu da eta irabazten duen taldearentzat, eta gol gehien sartzen dituen eta asto itxura haundiena duen jokalarientzat sariak izanen dira. Sari hauek paratu badituzte ere, antolatzailerik ez dute nahi konpetizioa sobera gogorra izatea, lagun artean ongi pasatzeko modu polit eta osasuntsua baizik.

Izena emateko, herriko edozein ostatura



Gazteak hainbat kontu antolatzen ari dira egunotarako: futbito txapelketa, olentzeroa, Santaktan...

Artxibokoa

joan behar da, abenduaren 18a baino lehen.

### Gazte Asanblada Eguberriak prestatzen

Hondarreko asteburuan, Gazte Asanbladak

bilera orokorra egin zuen. Bileran, kontzertu eguneko errifaren zozketa egin zen eta zenbaki saritua 2932 da.

Bertzalde, eguberrietako ekitaldiak ere antolatzen hasi dira gaz-

teak, horien artean berrienak olentzeroa eta Santaktak. Azken ospakizun horretarako eguna oraindik paratu ez badute ere, urtero bezala herritarrei aitzine-tik emanen zaie

Santakta egunen berri.

### Bai Euskarari kanpainako ekitaldiak

'Bai Euskarari' kanpainarako herriko elkartek zenbait gauza antolatzen ari dire. Joan den igandean, Ekaitza elkarteak opil jatea egin zen eta jende dexente bildu zen, eguraldi hotzarekin opil beroak jatera.

Abenduaren 12an, berriz, mezan Lesakako abesbatzak kantatu zuen. Ondotik, Andres Iñigo euskaltzainaren solasaldia egin zen eta eguna akautzeko, Zahar Txokon Amaia Zubiria-ekin girotutako afaria egin zen.

Abenduaren 26an Iruñeko Sadarren egin den ekitaldira joateko autobusa antolatu da. Animazte, okasiuk merezi du eta!

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>  
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**J. RAMOS**

Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut

© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

**PATROLA**

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

Albistur, 39-K  
948627542  
LESAKA

948 630 800

**AIZAGA**

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Karneten berritzea

**DROGUERIA MOLINERO**

- DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 BERA

# Eguberrietako bestak pasatu gabe eta iñauteriak prestatzeko bilerak hasi dira

Olentzero eta Errege Kabalgata ere prestatzen ari dira

JAIONE ETA ALBA

Gaur egun Eguberrietako bestetan gehiagopentsatzen ari baldin bagara ere eta oraindik denbora pixko bat falta bada ere, dagoeneko hasiak dira iñauterietako antolakuntzarako bilerak. Bizpahiru aldiz bildu da herriko jendea Ulibeltzak elkartearen datarren urteko iñauterietan aldaketak izanzen baitira. Halere, beti bezain ikusgarriak izatea espero dute.

## Olentzero abenduaren 24an aterako da herrian barna

Ohiko entsaioak egin ondoren, datorren abenduaren 24an Olentzero aterako da herrian barna. Arratsaldeko 2,30ak aldera aterako da Leku-Eder karrikatik eta ibilaldia aikuta, Ulibeltzal



Urtea akautu gabe eta batzuk dagoeneko iñauteriak prestatzen hasiak dira. Denbora abudo joaten baita!

Artxibokoa

elkartean berendu goxobat eskeiniko da parte-hartzaile guztientzat.

## Errege Kabalgata

Errege bezperako

Kabalgatarako prestaketak ere hasiak dira. Erregeak Herriko Etxetik abiatuko dira arrats partean. Hortik elizaraino joanen dira, herri-

ko abesbatza eta artzaienez lagundurik. Bertan opariak banatuko dira erregeengana hurbildu eta muxu ematen dieten guzien artean.

## Uraren erreziboa bi aldiz kobratua

Urteko hirugarren hiruhilabeteko erreziboa deskuiduan bi aldiz kobratu zaienei, dirua itzuliko die Udalak, bakoitzari bere banku edo aurrezki kutxako kontuan.

## Bake epaitegia

Bake epaile eta ordeko bake epaileen lanposturako deialdia zabaldu du Udaletxeak. Eskakizunak aurkezteko epea abenduaren 30a arte luzatuko da.

## Sokatira saioa Inmakulada Egunean

Inmakulada egunean sokatira ikusteko aukera polita izan zen pilotalekuan. 600 kiloko txapelketa zegoen joan. Pena da azken urteotan herriko tiralariek ez parte hartzea txapelketa hauetan.

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN**

Etxeko  
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**BELARRA**

OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 306

**JOPLIN**

Gazteen Moda

Juan Arana, 10 • 20300 IRUN  
Tel. 943 61 58 48

**APARAN, S. A.**

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**

**DONEZTEBEn**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



# **DONEZTEBE**

## **Eguberrietako kontzertua eskainiko dute Mendi Koralak eta Irungo Gazteen Orkestak**

Larunbat honetan, arratseko 7,30etako mezaren ondoren izanen da elizan

PATXI IRIARTE

Eguberrietako bes-  
ten hurbiltasuna pro-  
bextuz, Doneztebeko  
Mendi abesbatzak eta  
Irungo Musika Esko-  
lako Orkestra Gazteak  
kontzertua eskainiko  
dute larunbat honetan,  
abendua 19, San Pedro  
elizan. Kontzertua, arra-  
tseko 7,30etako meza-  
ren ondoren hasiko da,  
Orkestra Gaztearen so-  
ka taldearekin. Ondotik,  
eguberri kantuak eskai-  
niko dituzte Mendi  
Abesbatzak eta Irungo  
Orkestak. Kontzertu hau  
garrantzitsua da Mendi  
abiesbatzarentzat, lehen  
aldiz elkartzen baita tal-  
de sinfonikoarekin eta  
honek elkarlan haundia  
eskatzen du. Kontzertua  
Mendi taldeak antolatu  
du Doneztebeko Udala-  
ren babesarekin.

### **HIRU URTEGAN HAINBAT KONTZERTU ESKAINI DITU**

Jakina denez, Mendi  
abiesbatza 1996ko hil-  
beltzean sortu zen,  
Doneztebeko Musika  
Eskolaren babesarekin.  
Taldea gaztea izan arren,  
kontzertuak eskaini di-



Mendi abesbatzak Beran ere eskainiko du kontzertua abenduaren 22an

Zaldua

tu Iruña, Lesaka, Hernani,  
Hendaia eta Portugaleko Viana do  
Castelo eta Alcobaça herrietan.

Abesbatzak berriki  
egin dituen ekitaldien  
arte, J.A. Irigoien  
konpositore donezteba-  
rraren kantu bat berres-  
kuratzea dago. Kantua  
aspaldikoa izanagatik  
ez zen inoiz abestu, bai-  
na Santa Zezilia egu-  
nean aditu ahal izan zen  
elizan. Honekin batera  
omenaldia eskaini zi-

tzaion musikariaren  
alargun eta familiari.

Gaur egun, Mendi  
abiesbatzak 55 kantari  
ditu eta zuzendaria Iñaki  
Dieguez, Doneztebeko  
Musika Eskolako ira-  
kaslea da.

### **Santa Luzia**

Nekazal feria goize-  
an eta profesionalen ar-  
teko pilota partiduak  
—bat bigarren mailako  
binakako txapelketara-  
ko baliagarria, gainera—  
arratsaldean. Hori izan

zen Udalak prestatuta-  
koa, baina bertze bi osa-  
garrik eman zioten bi-  
xitasuna eta animazioa  
Santa Luzia egunari.  
Alde batetik, igandea  
izatea, parte hartzeko  
aukera zabala emanez;  
eta bertzetik, Malerre-  
kako erretiratuen euren  
besta eguna ospatzea.  
Larunbatean ere, hau-  
rrek Takolo, Pirritx eta  
Porrotx pailazoekin on-  
gi pasatzeko modua izan  
zuten. Beraz, denenda-  
ko egun ederra.

### **Egingo Dugu zozketa**

Doneztebeko ferie-  
tan Egingo Dugu kan-  
painaren alde artisau la-  
nekin osatutako zozke-  
ta zenbaki hauei egoki-  
tu zaie: 1-1.334; 2-0951;  
3-0068; 4-1.306; 5-  
0042; 6-0418; 7-0862;  
8-0564; 9-0646; 10-  
0516; 11-1.400; 12-  
0022; 13-0376; 14-0822  
eta 15-0842. Saridunek  
948 451528 telefonora  
deitu lehenbailehen.

### **Erreka Mendi taldea**

Joan den asteburuan  
Piriniotara joateko as-  
moa zuten Erreka men-  
di taldekoek, 3.000 me-  
troko bi gailur egitera,  
baina elur jauzi arrisku  
haundia zela eta bertze  
baterako utzi dute.  
Horren ordez, Hueska-  
ko Hecho bailaran ibi-  
li dira, baina Pinetatik  
Gavarnierako ibilbidea  
aurten eginen dutela  
ziurtatu dute.

*Eguberrietako opariak*

**Alustiza**

Nagusia 12 - DONEZTEBE  
Tel.: 948 450113

**Jostailuak • Perfumeak • opariak**  
*Zorionak eta Eguberri On!*

*Eguberri  
bezpera eta  
Urte Zahar  
gaueko martxa*

**IRINTZA**

**OSTATUA**

Merkatarien karrika 28  
© 948 451826  
DONEZTEBE

# EGUBERRI ON

**MARIAN**  
Mendiberrri

LURRINAK  
KOSMETIKA  
OPARIAK

Beheko Plaza,8 Telf.: 948 637 791

**LESAKA**

Denda berria zabaltik !!

**Ganbará**


Regala y Decoración

Decorazioa Opariak

Kanika nagusia

Telf.: 948 451 921

Danztebe



**Goya**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERRAMIENTAK

Altzate,5 Telf.: 948 630 083

**BERA**

**SINA**

JANTZIAK, BITXIAK.

**LESAKA**

Albistur, 3 Telf.: 948 637 951

Alizari Mexikarrak eta opariak

**KOLOKAN**

**BERA**

Iturlandeta,3 Telf.: 948 630 672



Bidasoa karrika,8 Telf.: 948 630 753

**BERA**



**SINTESIS**

**PELUAGA**

Emakume moda.  
Zure konfidantzako denda.

**IRUN**

Pº Colon,7 Telf.: 943 622 816  
Luis Mariano,16 Telf.: 943 620 681

**OIHANA**  
JANTZIDENDA

Erakusketa berritua



Eztegara, 14 Telf.: 948 631 401 **BERA**





# URTE ZAHARREKO AFARIAK

1 9 9 8



Urte Zaharreko afariak aukeran  
afal ondoko giroa alaitzeko  
trikitilariak arituko dira.

Hamabietan mahatsak eta ondo-  
tik...saski eder bat zozketatuko  
da.

Goizaldera baratxuri zopak.

*Eskaerak egiteko  
deitu lehenbailehen*

948 634 179 - ARANTZA



**AMEZTIA**

**jatetxea**

Iberikoak aukeran

Marisko koktela

Salda

Izokina gula eta itsas fruituekin

Solomilloa handi saltsan

Piku biskuita txokolate kremarekin

Kafea, likorrak, ardoa CODORNIU kaba

Mahatsak eta kotiloi boltsa

Pertsonako: 5.500

Eskaerak abenduaren 29a baino lehen.

Doneztebe 948 450 028

**DONSIMONBATA**

**J A T E T X E A**

Ahate urdaiazpikoa pikillo piperrekin

Esparragoak

Keztatuko izokina

Fritoak

Bakailuz betetako piperrak

Legatz beteak

Entrekot-a rokefort erara

Izozkia txokolate beroarekin

Ardoak, Kaba, kafea, kopa

Mahatsak

Pertsonako prezioa: 4000pta.

948 630 094 BERA



**BEREAU**

**JATETXEA - HOTELA**

Urdaiazpiko Iberikoak

Kanapeak

Zaizuri beteak

Piper beteak

Logostinoak plantxan

Rapea labean

Solomilloa

Hojaldre tarta, mahatsak eta Turroia

Kafea, kopa, kaba eta puroa

Prezioa: 5500

Errserbak egiteko 948 627 509

LESAKA



# Euskararen Berriak

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuaren argitalpena

12. zenbakia • 1998-XII-17

## XXI. Mendeko akordioa: Bai Euskarari

Honezkerodenok izan duzue kanpaina zabal honen berri. Euskal Herri osoan egiten ari den kanpaina hau gure herriotan ere egin da, eta herriotako hainbat talde, elkarte edo erakundek ere euren atxekimendua eman diote. Kanpainaren helburua, euskarak aurrera egiteko lortu behar den akordio soziala bultzatzea da, eta kanpaina bukatzeko ekitaldi erraldoia prestatu da: Euskal Herriko bost estadioak betetzea (Sadar, Anoeta, Mendizorrotxa, San Mames eta Aguilera). Beraz, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako herritar guztiok erronka honi erantzuten lagundu dezakegu, bost estadioak betetzeko gure ekarpena eginez, abenduaren 26an Iruñera joanez.

## Kultur ekintzak

Azken aldi honetan, azaro eta abenduan, euskara zerbitzuak (UEMArekin eta kultur taldearekin elkarlanean) antolatutako zenbait ekintzen berri emanen dizuegu, labur-labur: Txan Handiaren magia saioak (Goizuetan azaroaren 17an eta Areson abenduaren 7an); Yemen-i buruzko diapositiba proiektzioa abenduaren 11an, «Diztira, beti, ez da urre» Goizeko Izarra taldearen antzerki emanaldia abenduaren 19an, eta antzerkigintza ikastaroa Leitza.

## Aisialdi tailerrak

Urtero egiten den moduan aurten ere lau herriotako umeentzat aisialdi tailerrak anto-

latu ditu euskara zerbitzuak eguberrietarako. Beraz, oporegun hauetan jolas eta joko ezberdinetan elkarrekin aritzeko aukera izanen dute, 3 begiraleren laguntzarekin. Lau herriotako umeentzat irekia izanen da, eta eskolaren bitartez jakinaraziko zaie zein egun eta orduetan bilduko garen.

## Merkatariak ere euskaraz

Azaro-abenduan bi pertsona ibili dira herriotako dendan, tailer, taberna eta era guztietako establezimenduak bisitatzen, udaletako euskara zerbitzuak egiten dien eskaintza azaltzeko: errotuloak euskaraz jartzeko dirulagun-

tza, itzulpen-zuzenketa-aholkularitza zerbitzua... Helburua, herritarron eguneroko bizitzan hain garrantzitsua den sektore honetan euskararen erabilera bultzatzea.

## Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko hizkerak

Hau idazten ari garen momentuan oraindik ez dakigu zehazki noiz aterako diren, (Leitza-Aresokoa dagoeneko atera izan da) baina laster batean eskura izanen ditugu bi liburu mardul. Batean Leitza eta Aresoko hizkerak biltzen dira eta bestean Goizueta eta Aranokoak. Ordu askotako lana, bertako euskararen testigantza ederra, herritar guz-

tiontzat eskuragarri. Gure herriak eta bertako hizkerak hobeki ezagutzeko tresna ezinbestekoa, etxe guztietan behar lukeena.

## Euskaltegiaren matrikulazioa

1998-99 ikasturterako euskaltegiaren matrikulazioa ere berri aipagarria da, berri ona gainera. Ikasturte honetan matrikulazioa igo egin da, eta 54 ikasle egonen dira ikasturte honetan, honela banatuta:

Euskalduntzea: 16

Alfabetatzea: 16

EGA: 8

Gazteekin osatutako taldea: 14





Herritarren interesekoak izan daitezkeen hainbat gai landu daitezke telebistan: udalaren zerbitzuak, era guztietako deialdiak, herriko talde eta elkarte ezberdinek egiten dutenaren dibulgazioa, bertako kultura bultzatzea, ... eta herrigintza oro har.

# Leitzako Telebista sortzeko proiektua

Azken urteotan komunikabideek gizartean lortu duten pisua eta gure eguneroko bizitzan duten eragina begibistakoa da. Komunikabideen hedapen horren barruan nahikoa fenomeno berria da tokian-tokiko telebistarena, baina gero eta zabalduagoa. Leitzan ere sortu da honelako asmoa, eta proiektu horren sortzaileek bultzatuta horren inguruko zenbait eztabaida eta azterketa ere egin da, batez ere udalarekin edo honen ingu-

ruan.

Baina horrelako proiektu bat herritarrei emanen liztaiekeen zerbitzu bat denez, eta herrigintzan pisu handikoa izan daitekeenez, herritarrek horren berri izatea ere interesgarria eta komenigarria da eta horregatik saiaturko gara hemen, labur bada ere, horren inguruko hausnarketarako ideia batzuk azaltzen.

## Telebistaren funtzioa herrian

Bertako telebista batek funtzio desberdinak bete di-

tzake herrian: hasteko, bertako berriak lantzeko eta eza-gutsera emateko bide zuzena izan daiteke. Baina zerbitzu bat dela planteatzen denean, irratiarekin egiten den moduan, hori baino gehiago esan nahi da. Herritarren interesekoak izan daitezkeen hainbat gai landu daitezke: udalaren zerbitzuak, era guztietako deialdiak, herriko talde eta elkarte ezberdinek egiten dutenaren dibulgazioa, bertako kultura bultzatzea, ... eta herrigintza oro har. Leitzako herritarrentzat elementu garrantzitsua izan daiteke, informazioa landu eta truka-



moduan, jakina berak komunikabidean apostu handia duela, aurrera ateratzen. Ez bakarrik euskararen erakunde ezberdiak, kaltegia, euskararen EHE, UEMA...) eta na azaltzeko erabilerak. Baita euskarazko teak duen garrantzia. Azken batean, erdiko komunikabideen pregarriari erantzutea dira bertako komunikabideak (irratia, karia, telebista edo delakoa). Irratiaren erabilerak horrexegatik eza, beste arrazoi batzuekin batera.

## Aurkeztu den proiektua

Proiektua Leitzako gazte batzuen artean sortu da. VIDI-COM produktorari dabilzanak eta Karrape Irratian esperientzia dutenak dira. Hauen planteamendua Leitzarako bertako telebista bat sortzea da. Aukera tekniko ugari egon

telebistak berak sortutakoa edo produzitutakoa emanen litzateke (bertako berriak, kultura, dokumentalak, elkarrizketak, mahai-inguruak...)

**Aukera tekniko ugari egon badaitezke ere, Leitzaren ezaugarriak, beharrak, gaur egun dagoen azpiegitura eta alderdi ekonomikoa kontutan izanda, ttipi-ttapa telebistaren bitartez emititzea planteatzen dute.**

gehituta, irrati-telebista egin litekeela planteatzen dute.

## Kontuan hartu beharrekoak

Udalak gai honen azterketa egin duenean zenbait alderditan jarri du arreta: alderdi teknikoa (antena...), egin beharreko inbertsioa, egoera legala, irrati finkatu beharra, emisioaren kantitatea eta kalitatea...

Jakina, honelako proiektu batek abantailak eta arriskuak ditu. Adibidez, abantailen artean, aipa daiteke telebista lokalak oso komunikazio zuzena ahalbideratzen duela. Gainera, herriko talde, elkarte eta era guztietako kolektiboentzat adierazpide ezin hobea izan daiteke, eroso, erraza, eta etxe guztietara modu eraginkorrean iristeko modukoa.

Arriskuen artean, aipa daiteke zaila dela Leitzaren taimainako herri batean kalita-

duen programazioa egin eta mantentzea, edota telebistak asko erretzen duela, eta jendea eta irudiak

erretzeko arriskua dagoela, hau da, jende eta irudi bere-tsuak askotan ateratzeko arriskua ere badagoela.

Horiek guztiak, eta beste batzuk ere, kontutan hartu behar dira proiektu edo ideia bati baiezkota eman baino lehen. Aztertze dagoen alderdi bat herritarren iritzia edo jarrera da. Horretarako urratsak ematen ari dira orain, ahal den neurrian gaia plazaratuz eta ezagutzera emanez.

Telebista lokal baten aldeko apostua egitea ez da erabaki erreza, eta herriari, euskarari, kulturari eta azken finean herritarrei komeni zaie-naren ikuspuntutik begiratu behar da, lehentasuna duen edo ez erabakitze. Edozein modutan, herritarren jarrera jakitea ere komeni denez, interesgarria izanen litzateke bakoitzak ahal duen moduan edo neurrian horren inguruko iritzia adieraztea.





# Telefonoaren mezuak euskaraz



**E**txean telefoni-  
karen eran-  
tzungailu auto-  
matikoa du-  
zuenok, nahi  
izanez gero,  
zuen telefonoak ematen diz-  
kizuen mezuak («mezu berri  
bat daukazu» eta antzekoak)  
euskaraz entzun ditzakezue.  
Horretarako, urrats hauek ja-

rraitu behar dituzue:

Telefonoa hartu. Mezuak  
entzun ondoren (halakorik  
balego), bi aukera daude: 0  
(ateratzeko) edo 1 («hauta-  
pen pertsonalak» edo «op-  
ciones personales») botoiak  
sakatzea. 1 aukeratu

Erantzungailuak 4 aukera  
emanen dizkizu. 4.a aukera-  
tu, hizkuntza aldatzeko au-

ke-  
ra  
ema-  
te n

duena hain zuzen, 4 botoia  
sakatuz.

«Clave de acceso» dela-  
koa eskatuko dizu. Aurretik  
zerorrek aldatu ez baduzu, zu-  
re klabea 0000 izanen da, be-  
raz, zenbaki hori markatu.

Ondoren, hizkuntza auke-

ratzeko esanen dizu, horreta-  
rako bi aukera emanaz. Hiz-  
kuntza autonomikoari dago-  
kion zenbakia aukeratu (2)  
eta sakatu. Hortik aurrera,  
erantzungailuak berak azal-  
duko dizkizu eman beharre-  
ko urrats errazak.

# Gazteak eta euskara

**D**uela aste ba-  
tzuk, gazteen  
arteko euska-  
raren erabile-  
raz hausnarke-  
tatxo bat egi-  
teko asmoarekin, Leitzako  
gazte batzuekin 3 bilera egin  
genituen: 16-20 urte bitarte-  
koekin, 20-24 urte bitarte-  
koekin eta 24-30 urte bitar-  
tekoekin. Hizkuntza joera ez-  
berdinak dituen jendea eka-  
rri nahi izan genuen bilere-  
tara. Erderaz egiten duena,  
beti euskaraz egiten duena,  
biak berdintsu erabiltzen di-  
tuenak,...

Oso labur, bertan hitz egin-  
dakoa entzun ondoren atara-  
tako ondorio batzuk aipatu-  
ko ditugu:

Badirudi gazteenen artean  
euskara gehiago erabiltzen de-  
la, euskaldunagoak datozela

Euskararen egoerarekiko  
pertzeptzioa nahikoa ona da,  
batez ere gazteenen artean.

Euskararen kontrako jar-  
rerarik ez dago, ez behintzat  
jarrera argirik edo nabar-  
mentzeko modukorik.

Euskararekiko jarrera ona  
da, baita erderaz egiten du-  
tenen artean ere.

Koadrilla batzuetan gai ho-  
netaz hitz egiten da, eta ba-  
tzuk euskara gehiago erabil-  
tzeko ahalegin konszientea  
ere egin izan dute. Gazte ba-  
tzuk euskaraz egiteko eraba-  
ki konsziente eta pertsonala

ere hartu dute, eta horrek ere  
izaten du bere eragina.

Erderaren laguntza bila-  
tzen da askotan espresibitate  
era bat lortzeko, erderaren  
makuluak.

jerga/argota: erderaz, gaur-  
ko gazteek, euskaraz mende-  
ratzen ez dituzten errekurtsio  
asko dituzte.

Solaskidearen euskarare-  
kiko jarrerak ere zerikusia du  
hizkuntza aukeratzekoan.

Badago adin bat, nerabe-  
zaroaren inguruan, erdera era-  
biltzen hasten dena. Ez da oso  
argi ikusten zergatik gerta-

tzen den hori. Seguraski arra-  
zoi asko daude.

Erderaz hitz egitearen arra-  
zoi gisa, askotan ohitura ai-  
patzen da. Baina ohitura ho-  
ri noiz finkatu den, eta noiz  
galdu edo aldatu zen euska-  
raz egiteko ohitura ez da argi  
ikusten.

Badago, urteekin, euska-  
rara itzultzeko ohitura bat ere,  
berriz euskaraz hitz egiten has-  
teko.

Euskararen erabilera bul-  
tatzeko zerbait egitea inte-  
resgarritzat jo da. Zerbait egin  
daiteke, baita koadriletan ere.



## ETXANDI TXOKO jateketa

Pastel pudina saltsa arrosean  
Ganba eta baratxuri freskoen nahaskia  
Hondoz betetako piperrak  
Langostinoak plantxan

\*\*\*\*\*  
Salda

\*\*\*\*\*  
Bixigua labean

\*\*\*\*\*  
Solomilloa plantxan guarnizioarekin

\*\*\*\*\*  
Limoi sorbetea txanpainarekin  
Turroiak

\*\*\*\*\*  
Homenaje ardoak, Codorniu kaba,  
kafea eta kopa

\*\*\*\*\*  
Urtezahar mahatsak

\*\*\*\*\*  
Pertsonako prezioa 4.500 pzta.

Eskaerak egiteko deitu 948 450 491  
ITUREN

## IGANTZI JATEKETA

Patea, kogolloak antxoekin, kraba  
pudina, ahate urdaiatzpikoa pikilo  
piperrekin.

Etxeko nahaskia, langostinoak plantxan

Solomilloa guarnizioarekin

Gazta tarta edo patxaran sorbetea  
edo kaba sorbetea  
Turroiak aukeran

Kafea, kopa eta puruak

Urtezahar Mahatsak eta katiloi boltsa

ATONDO ardoak, SEGURA VIUDAS kaba

PERTSONAKO PREZIOA: 4.000 pzta.

Abenduaren 27a arte 948 637 502



Entremes hotz eta beroak

Salda

Txuleta edo solomilloa

Milhojas tarta eta izozkia

Ardoa, txanpaina, likorrak, kafea

Urtezaharreko mahatsak etakotiloi poltsa

Pertsonako: 4.500

Eskaerak abenduaren 27a baino lehen

948 453 403 Arizkun

# URTE BERRI SARRERA ONA EGIN

1 9 9 9



# ZORIONAK



Kalotxa Zapatak  
eta osagarriak

Kanttonberri, 6 Telf.: 948 631 516  
**BERA**



Lurrindenda  
Opariak  
Estetika eta Kosmetika

Ameztiá, DONEZTEBE  
Telf.: 948 450 163



**IPINGI** Opariak

Jantziak

, 88 Telf.: 948 580 939

**ELIZONDO**



**MARELI**  
jantziak

Neurri haundiak 3etik 60re  
bitarteko tailak

Jaime Urrutia, 27.ELIZONDO



Denda berria gabalib!!

**Ganbara**

Regala y Decoración

Decoración Opariak

Karrika nagusia

Telf.: 948 451 921

Doneztebe



**LESACA**

Behoko Plaza, 8 Telf.: 948 627 514

Lentzeria



**EIXARTE**

Bitxi eta erlojudenda



Bitxi eta erlojudenda. Taller propioa



Kanttonberri karrika, 8 BERA Merkatu karrika,DONEZTEBE  
948 630 750 948 451 519



**MARIXUS**

TB, Bideo eta  
musika eki poetan  
eskaintza bereziak



Zarandia,3 Telf.:948 637 070 **LESACA**





## MALERREKA-BERTIZARANA

### Iturengo Kultur Egunak ongi joan dira

IBAN ISASI

Abenduaren lehen asteburuan ospatutako Kultur Egunak ongi joan dira.

Ortziralean, trikitilariak eguraldi txarrari aurre eginez, herrian barna ibili ziren. Ondotik, Herriko Etxeko sabaian taloan zuten hurbildu zirenek. Egin egingo dugu solasaldia bertan behera gelditu zen, baina eguberrietan gauzatuko

omen da. Gauean, jende aunitz hurbildu zen leitzarrek egindako “40 ordu” filmea ikustera. Jende gehien erakarrri duen ekitaldia izan da. Biharamon goizean, haurrendako jokuekin hasi zuten eguna. Gazteenek, herrian bar-

na banatutako paperak bildu zituzten ginkanan. Arratsaldez pelikula eta berendua eta gauez herri afarira berrogei lagun inguru hurbildu ziren. Ondotik, eta igandeko eguzkia ikusi arte, segitu zuen bestak.

### Ehun pago moztuko dira Bertizen urte akabila baino lehen

Azaroaren bukaeran inguruko alkateei aurkeztutako iharduera planaren arabera, 101 pago moztuko dira urte akabila baino lehen Bertizko natur parkean. Madrilgo Unibertsidade Politeknikoak ekainetik irailera egindako azterketa kontuan hartuz, hondatuen dauden zuhaitzak moztuko dira, pago eta haritz baso mistoa mantentzeko intentzioarekin.

Plan honek 2,7 milioi pezetako aurrekontua dauka eta lehendabiziko mozketak Aizkolegi inguruan egingen dira. Eri dauden arbolak moztu, eremua garbitu eta zuhaixka gazteei lekua uztea da hasierako helburua

### Bertizko Merkatari Elkartearen lehiaketa

Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatarien Elkartean dauden dendariak urtarilaren 14an egingen den zozketarako txartelak banatzen hasiak dira beraien bezeroen artean. Egun horretan 50.000 pezetako balioa duten sei bale zozketatuko dira, elkarteko dendetan nahi den produktuarengatik trukatzeko ahal direnak.

**GOIZUETA**

# Herriatik El Sadarrera 'Bai Euskarari' esatera

Autobusak debalde izanen dira hilaren 26an Iruñara joan nahi dutenentzat

ESTEBAN AROZENA

Azken aste hauetan Kontseilua erakundea burutzen ari den 'Bai Euskarari' kanpainak bukaera ikaragarria izanen du abenduaren 26an, arratsaldeko 5,30etatik aurrera Euskal Herriko bost futbol zelaietako harmaiak betetzea baitu helburu.

XXI. mendeko akordio baten aldeko mugimendu hau merezi duen neurrian baloratu du udaleko Euskara Batzordeak. Horregatik, Iruñeko El Sadarrerajoko gonbidapena luzatu die herritar guziei, autobusak dohain antolatuz gainera. Interesatuak izen emateko lekuak Urrutinea eta Maritxu tabernak eta Antton kafetegia dira, hilaren 24a arteko epea

delarik horretarako.

**Orkatz-txiki abesbatzaren emanaldia abenduaren 19an**

Abenduaren 19ko ilunabarreko meza bukatu bezain pronto, Zegamako Orkatz-txiki abesbatzak emanaldi bat eskainiko du elizan. Bederatzitik hamabost urte bitarteko 23 abeslari daude talde horretan. Programari bu-

ruz esan hamalau kantek osatzen dutela Goizuetara ekarriko dutena, hauen artean, nola ez, sei gabon-kanta. Udalaren eskutik dator ekitaldi hau.



## Su-hiltzaileen aretoa berrituko da

Herriko su-hiltzaileek erabiltzen duten aretoa berritzeko lanak Zabala y Goikoetxea eraikuntza enpresak hartu ditu bere gain. Madalenako ermitaren ondoan dagoen lokal horri teirlatu berria emanen zaio barrenean egingen diren beste hainbat obrez gain. 7 milioitik gorako aurrekontua dute lanek eta dirutza hau oso-osorik Nafarroako Gobernuak.

## Urte Zahar egunean berriz, plazara

Herriko Etxetik datozen berriekin segituz, esan, Udaltzaz bat egin duela Senideak, euskal presoen senitatekoen eskaerarekin.

Askatasuna debekaturik duten pertsona orok dagokion zigorra bere familia eta gizarte inguritik ahalik eta hurbilen dagoen espetxean

betetzeko duen eskubidea aldarrikatzen du mozioak. Baita ezarritako zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten presoek askata-

sun balditzatuan egoteko duten eskubidea ere. Besteak beste bi puntu hauengatik haintzat hartu du Udalak Senideak-en mozioa. Herritarrek ere senideei sustengua adierazi diezaieten, Urte Zahar egunean ilunabarreko 8etan herriko plazan egingen den kontzentrazioa deitu ditu korporazioak.

**ARESO**

# Euskararen aldeko ekitaldiak egunotan

Sokatira taldea bikain ari da

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Abenduaren 6an ospatu zen Euskararen Eguna. Eguraldia ez zen portatu baina, arazo guztiei aurre eginez, festa polita atera zen. Txan haundia magoa, hamai- ketakoa taloarekin, pi-

lota partiduak eta dantzari txikiak bete zuten goiza. Eguerdian, herri bazkaria paella txapelketan parte hartutako platerekin. Txapelketa honetan Mari Carmen Garmendia izan zen irabazle, txapela eta sariak lortuz. Ederki bazkaldu

eta algarra eta kantubatzuen ondoren, trikitixa txapelketa izan zen bost bikoterekin. Hemen Igor eta Jokin herritarrek garaile suertatu ziren. Ondoren txokolatada

eta dantzaldia, egunari bukaera emateko.

## Bai Euskarari

Ostiral honetan, Bai Euskarari kanpainaren

aurkezpena egingen da Herriko Etxean, arratsko 8,30etan. Euskararen Kontseiluak eta Aresoko Euskara Batzordeak antolatuta dute.



## Sokatira taldea txapeldun

680 eta 640 kiloko txapelak jantzi ditu eta asteburu honetan jokatu beharra zuen 600koaren azken jardunaldia. Argazkian, 600 kiloko bigarren jardunaldikoa da, Sunbillan.

Legarra

# Zinemako moldaketak direla-eta ez da filme emanaldirik izanen oraingoz


LAB sindikatua nagusitu da Sarrio lantegiko hauteskundetan

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako zineman berrikuntza lanak egi-ten ari dira, beraz, obrak bukatu arte ez da pelikularik emanen. Lokalaren egoera txarra kontutan hartuta, zenbait obra egi-tea erabaki du Udalak. Eserlekuak aldatzen ari dira (bigarren eskukoak jarriko dira); zola ere berrituko da; larrialditarako irteerak egokitu-ko dira; argi instalazioa aldatuko da; eta bigarren proiektore bat erosi-ko da, pelikulak mozketarik gabe eman ahal izateko. Hilaren 26an hasi nahi da berriz ere pelikulak ematen.

## Hauteskunde emaitzak Sarrian

488 langileen zentso batetik %88,5k parte hartu zuen Sarrio lantegiko hauteskunde sindikaletan. Administrazio eta teknikarien artean ELAk 68 botu (2 ordezkari) eta LABek 45 (2) eskuratu zituzten. Espezialista eta langile ez kualifikatuaren artean, berriz, ELAk 153 (4 ord) eta LABek 157 (5 ord).



## Amazabal pilotalekuko teilatua

Amazabal pilotalekuko teilatuaren egoera txarrarekin kezkatuta (itaxurak, uralita lasatuak, etab.), Udalak Hezkuntza Departamentuari dirulaguntza eskatu dio lehenbailehen berritu ahal izateko. Udal instalakuntza hau Institutoko eta Eskualdeko Ikas-tetxe Publikoko ikasleek erabiltzen dute gehien bat, bai atsedenaldietan, baita soinketarako orduetan ere. Moldaketa-obren aurrekontua 10 milioiokoa da. Argazkian Pilota Eskolakoak ikus ditzakegu.

## Antzerki emanaldiak

Leitzako Kultur Taldeak honako bi ekitaldi hauek antolatu ditu: Abenduaren 19an, iluntzeko 8etan, herriko zineman, Goizeko izarra taldeak, "Dizdira, beti, ez da urre" antzezlanak aurkeztuko du.

Abenduaren 22an berriz, arratsaldeko 5,30etan, Amazabal pilotalekuan Kukubiltxo taldeak, "Kukubeli" antzerki saioa aurkeztuko du.

## 32 hilobi berri kanposantuan

Udalak beste 32 nitxo berri egingen ditu

kanposantuan. Hauen aurrekontua 4.386.861 milioi da eta esleipen edo adjudikazioa su-basta bitartez egingen da. Obran parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea hilaren 17a artekoa da. Lanak datorren urteko ilbeltza-ren 4a baino lehen hasi

beharko dira eta bi hilabete epean bukatu.

## Manifestaldia


Udalak manifestaldi deialdia luzatuko du Euskal Presoak Euskalerrira orain lemapean. Manifestaldia abenduaren 31n, arratsaldeko 6etan izanen da, Udaletxeko plazatik abiatuta. Erabakia HB eta EAK hartu zuten Senideak taldearen mo-zio baten ondorioz.

## Lizarrako Akordioa

EA eta HBk batzar-rrera deituko dituzte herriko elkarte, sindikatu eta herri mugimendu ezberdinek, Lizarra-Garaziko akordioaz ari-tzeko. Bilera, ilbeltza-ren 8an, arratsaldeko 8etan izanen da, ziur as-ki, udaletxean.

## Kontzertua larunbatean

Abenduaren 19an, gaueko 10etatik aurre-ra kontzertua izanen da pilotalekuan Anarko, Soziedad Alkoholika, Latzen eta Komarekin. Sarrerak, aurretik 1.300 pezeta eta bertan 1.500.



Urtebeteko konexioa gehi  
posta elektronikoko helbidea:  
**10.000 Pta. + BEZ**

# KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobe duzu orain. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptan.

Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

**(+34) 948 631188**



## BAZTAN

## Eguberrietan hainbat kultur ikuskizun izanen dira

Bozateko Gorrienean eta Elizondoko Arizkunenean erakusketak egingen dira

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako egun seinatuak gainean ditugula-eta, urtero bezala, hainbat kultur ekitaldi izanen dira herriz herri.

Hasteko erakusketa ugari izanen dira. Abenduaren 10etik 17ra, "Eguzki bidezko asmakariak" ikusgai daude Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara.

Leku eta ordutegi berekin, abenduaren 18tik 29ra, "Nafarroako basoak", Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamenduak eta Balleko Udalak antolatutako erakusketa zabalik egonen da.

Arizkun, Bozateko Gorrienean bi erakusketa izanen dira abenduaren 19tik hilbeltzaren 6ra. Alde batek, "Jaiotza Baztanen"



## Ikastolaren Krosa, 'Bai Euskarari' kanpainaren alde

Igande honetan burutu da Baztango ikastolak Balleko Udalaren laguntzaz antolatutako Eguberrietako Krosa. Urtero bezala, korrikalari gaztetxoek aukera izan dute, maila ezberdinetan parte hartzeko. Aurten, kirol ekitaldi hau, "Bai euskarari" kanpainaren barnean sartu da.

izenekoa eta, bertetik, "Eguberrietako postal erakusketa". Erakusketok Xabier Santxotenenak eta Baztango Udalak antolatu dituzte. Gorrienean ordutegia, la-

runbatetan, 12etatik 2etara eta 4etatik 7etara; igande eta besta egunetan, 4etatik 7etara.

Musikak ere izanen du lekua Arraiozko elizan. Abenduaren 26an,

arratsaldeko 7,30etan arpa eta txirula kontzertua izanen da Roberto Casado (txirula) eta Abigail Aranda (arpa) musikarien eskutik.

## Zazpi udal lanpostu finko betetzeko deialdia luzatu da

Baztan Balleko Udalak oposizio lehiaketaren bidez, finkoak izanen diren zazpi lanpostu betetzeko deialdia luzatu du. Zehazki, kultur koordinatzailea, kirol koordinatzailea, bi administrari laguntzaile, bi kontser-

je eta mekanikan espezialduta-ko langilea kontratatu nahi dira.

Erabakia ez zen udal kide guzien gustokoa izan, EAren sei botuekin eta HBkoarekin onartu baitzen eta UPNko hiruk eta ABkoak kontra bozkatu baitzuten. UPNren erranetan, kontra bozkatu zuen, deialdia egin den moduarekin ez baitzeuden kon-

forme. Talde honetako zinegotziek xehetasun gehiagorekin aztertutari nahi lukete deialdia baztordeetan.

Agrupacion Baztandarrako Juanito Meoki, bere aldetik, lanpostu hauek finkoak izatearen aurka azaldu zen. Bere ustez, langilegoa lau urtetik behin berritzeko aukera egokiagoa da udalarentzat.

## flash

## Ertamerikara dirulaguntza

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeko Guraso eta Irakasleen Elkar-teak 125.000 pezeta bildu ditu Mitch hurakanak kaltetutako-ei laguntzeko. Iruñeko Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinadoraren kontura sartu dute dirua.

## Traktoreen Azterketa Teknikoa (ITV)

Egunotan Baztanen dago traktoreen azterketa pasatzeko tailerra. Astearte eta asteazkenean Amaiur eta Erratzun egon dira, ortzegunean (17) Azpilkuetara ganen dira; ortziralean Arizkunera, astelehenean (21) Elizondora eta asteartean (22) Irurritara.

## Baztango Gazte Asanbladaren zozketa

